

BANAKAKO FAMILIAKO GIZARTE LANGINTZA

1. GAIA. BANAKAKO ETA FAMILIAKO GIZARTE LANGINTZAREN OINARRI EPISTEMOLOGIKOAK ETA METODOLOGIKOAK

1.1.GIZAKIA, FAMILIAK ETA ALDAKETA SOZIALA

1.1.1. NORBANAKOA:oinarri teorikoak eta bere aplikazioa gizarte langintzan

1.1.1.1. NOLA ULERTZEN DUGU GIZAKIA

Elkar eragiten dauden elementu guztien ulermena beharrezkoa da: biologikoa, psikologikoa eta soziala. Bere osotasunean ulertu behar dugu. Aurreko elementuak kontuan hartuta (psiko.; biolo.; soziala). Elementu horiek gizakiaren unitatea osatzen dute ingurunearekin elkarri eragiten dute. Gizakiaren edozein elementuan gertatutakoak eragina izango du besteetan. Pertsona batek gaixotasun fisiko bat baldin ba du, bere elementu/alderdi psikologikoak eta sozialetan ere eragina izango du. (Guretzako konplexutasuna suertatzen da). Arazoak elkar gurutzatzean konplexutasuna suertatzen zaigu. Batzuetan pertsonarengan harreman zuzena duen elementuan lan egitea ez da posible, baina posible litzateke besteetan aritzea, hobekuntza edo gutxienez ondorio negatiboak gutxitzeko. Bere osotasunean ulertu behar da aurreko elementuekin.

Gizakia bere ingurunearekin harremanetan dagoela onartzen ba dugu, eta ingurune hori gure ahalmenak garatzeko beharrezkoa dela, zera onartu beharko dugu: ingurunean egiten dugun edozein ekintza ondorio positibo eta negatiboak izango dituela pertsonarengan.

Beraz, ingurunea hobetzeko egiten dugun guztia, ekintza prebentiboa bihurtuko da eta eragin zuzena izango du pertsonen ongizatean.

Gizakia eta ingurunea elkarrekin baldin badaude, Gizarte Langintzan garatzen dugun esku-hartzea bietara zuzendu beharko dugu, eta ez bakarrik itxuraz indibidualak diren arazoetan.

1.1.1.2. GIZAKIA ETA BERE EKOSISTEMA

Gizakia ingurune ezberdinetan garatzen da, perspektiba ekologikoa jarraituz, honi ekosistema deitzen zaio. Gizakiok bizirik irauteko, garatzeko eta gure ongizatea bermatzeko gure txoko ekologikoa aurkitu behar dugu bere ekosisteman. Horrela izanda, gure ingurunearen baliabide sozial eta materialak eskuratzeko rola garatu ahal ditugu. Gizakia ekosistema ezberdinetan kokatzen da: Hurrengo ekosistemak ere elkarrekin eta beraien artean gurutzatzen dira: Elkar gurutzatzen dira.

– FAMILIAREN EKOSISTEMA (hazkundera, garapena)

– LANA ETA HEZIKETAREN EKOSISTEMA (hazkunderaren jarraipena, gure rola garapena, harreman sozialak)

– EKINTZA SOZIO-KULTURALEN EKOSISTEMA (lagunak, harreman sozialak, ekintza kulturalak-kirolak-sozialak)

– EKOSISTEMA KOMUNITARIOA (aurreko ekosistemen ingurune geografikoa, zerbitzuen antolaketa, beste ekosistemen beharretara erantzuten) Adin, momentu pertsonalaren arabera bat edo bestea izango da eta baita ere guztiak batera aldi berean eman daitezke. Beraz egiteke dago dena, mugimenduan daude.

Gizakia eta inguruenaren arteko elkar eraginaren **eragile ezberdinek** hartzen dute parte:

ERAGILE POLITIKOAK (gizartean nola hartzen diren erabakiak, antolaketa soziala)

ERAGILE EKONOMIKOAK (gizarte baten aberastasunen ekoizpena, banaketa eta kontsumoa)

ERAGILE SOZIO-POLITIKOAK (arauak, balioak, sinesmenak, genero ikuspegia, ohiturak, hartutakoak eta konpartitutakoak) genero ikuspegia.

ERAGILE FISIKOAK (klima, erliebea, distantzia, altuera)

Elkar eragin honetan sorturikoak errazten digu zera ulertzen: egoera berrietara eta pertsona ezezagunekin egokitze ahalmena

1.1.1.3. INGURUNEA ETA ARAZOEN TESTUINGURUAK

Arazoak eta egoera problematikoak ez daude espazio hutsean. Inguruneko eta testuinguruaren aldagaiekin lotura dute. Ba daude ingurune batzuk laguntzen dituzten gizakiak dituen arazoak hobeto ulertzeko. *Gu ez dugu aurrean dugun pertsonaren arazoaren giltza, ez metodoa, ... gu gidariak gara besterik eta aurrean dugun pertsona errespetatu behar dugu besterik.*

KULTURALA

Kultura ezberdinen arteko talka – txokea - , handia eta txikien artekoa, hor sortzen diren arazoak: asimilazioa, alienazioa, konfiantza eza.

ARRAZA

Gutxiengo baten enfrentamendua kultura nagusiarekin balio, arau, ohiturak eta egitura familiarak jarraitzeko orduan. (Ijitoekin)

KLASE SOZIALA / (SOZIOEKONOMIKOA)

Ondo jakin behar dugu klase sozial ezberdinen portaera ezberdinak: moduak, manerak, jantzia, lengoia. (Asko dutenen eta ez dutenen artean.

Gurasoek eragina zuzena edo ez zuzena dute seme-alaben portaeran, sozializazio prozesuak familian hasten dira eta. (Asko dutenak eta ez dutenak).

LANA ETA HEZIKETA

Adierazgarria lana ez dagoenean, eta ez izateagatik sortzen diren arazoak. Krisi egoeran lan egiten duten langileek estresa pairatzen dute, etxean suminkortasuna agertzen da, arazo fisiko zein psikologikoak agertuz.

OSASUNA

Osasun egoerak arazo psikologiko ezberdinak ekarri ahal ditu. Hormonekin loturiko arazoek depresioa edo gogogabetasuna ekarri ahal dute. Tratamendua jasotzen ari direnean portaera ezberdina dute. Bereziki tratamendu psikologiko edo psikiatrikoa dagoenean: alkohola, drogamenpekotasunak, ludopatiak, eta bestelako menpekotasunak. (O.N.C.E. / A.S.P.A.C.E)

GENERO

Arazo gehienak genero ikuspegiarekin ulertu behar ditugu. Hemen ikasitako jarrera sexualaren ezberdintasuna egongo litzateke.

LEHENTASUN SEXUALA

Gutxiengo baten lehentasuna denean (homosexualitatea, LESBIANAK, bisexualitatea, Transexualitatea) arazoak sortzen dira: adaptazio arazoak, auto-estima eta identitatea galtzea, bai maila pertsonalean zein sozialean.

ADINA

Adinarekin sortzen daitezken diskriminazioak Mendebaldeko kulturarekin egoten dira lotuta, ekialdean askoz estimatuak dira eta.

ERREFERENTZI TALDEAK

Gizakia animalia soziala da, taldeetan egoten da kokatua. Askotan erabiltzailearen portaera ulertzeko hobe da bere taldera joatea. Nerabe batek delituzko jarrera izan ahal du taldeak bultzatuta (bakarrik ez luke egingo).

ERLIJIOA

Pertsona askorentzat erlijioa euren bizitzaren atal nagusi bat da, eta kontuan hartu behar duguna.

1.1.1.4. GIZAKIA IKERTZEKO KONTUTAN HARTZEKOAK (PERSPEKTIBA EKOLOGIKOAN)

Lehenengo ekosistemak – familia, lana, ekintza sozio-kulturalak, komunitarioa – Gizarteratzeko prozesuak (famiariarekin, taldeekin, rol eta itxaropenak honen arabera: genero, adina, kultura, etnia).



Jarreraren moduak: balioak, arauak, sinesmenak. Oso garrantzitsua gizarte langintzan immigrazio etnia talde gutxiengoan.

Ingurune fisikoa, aukera eta oztopo mailan, beste baliabideak izateko: heziketa, kulturalak, ekonomikoak, sozialak, etab.

Egoera-arazoaren testuinguruko analisisa (kultura, etnia, klase soziala, familia, lana, heziketa, etab.)

Gizartean eragina duten beste eragile globalak: politika, ekonomia, kultura, etab.

1.1.2. FAMILIA: kontzeptua, jatorriak eta egungo egoera



Familia babes sistema bezala indarra galtzen doa, familia partaidea gutxitu da, familia mota desberdinak agertzen joan dira, Banantzeko aukera asko zabaldu da eta familiaren balio, baloreak, ohiturak aldatu dira.

1.1.2.1. KONTZEPTUA: LEGALKI

Senar-emazteak (2 gizon eta 2 emakumez osaturikoak barnebiltzen dira senar emazte kontzeptuan) diren pertsonak osaturiko taldea, eta bere ahalmenpean dauden seme-alabak, edo nahiz ta emantzipatuak izan ez dute familiaren etxea utzi (Albadalejo, 1991)

1.1.2.2. KONTZEPTUA: ANTROPOLOGIAN

Familia, batasun iraunkor maila ezberdinean jaioa, baina sozialki onartua, gizon eta emakumeak sorturiko etxea da, non umeen ugalketa eta zaintza garatzen den. Gizarte guztietan dagoen instituzioa da (Levi-Strauss, 1993)

1.1.2.3. KONTZEPTUA: ESTADISTIKA

Etxebizitza familiarrean dauden pertsona taldea, gastu batzuk komunean partekatzen dituzte eta ahaideak dira (odolez, politikoak) bere gradu independenteki hartuta (Errolda, 1991)

1.1.2.4. KONTZEPTUA: SOZIOLOGIAN

Familia ≠ Etxea

Familia: Gizakia banaka eta belaunaldi bakoitza gainditzen duen jarraipen sinbolikoa, iragana eta geroa elkartzen duena.

Etxea: Espazioan eta denboran mugatua, funtzio ekonomikoa izanik, zerbitzuak prestatzeko dago bizi-zikloan zehar.

(Mari Angeles Duran , 1987)

Senar emazte edo filiazioz bilduriko bi pertsona edo gehiago, elkarrekin bizi direnak, baliabide ekonomikoak ipintzen dituzte eta ondasun ezberdinak kontsumitzen dituzte (Ines Alberdi, 1982).

1.1.2.5. KONTZEPTUA: NBE (NAZIO BATUEN ERAKUNDEA)

Gizartearen oinarrizko unitatea, laguntza emozionala (besarkada, muxua, kontaktu fisikoa da ematen dugun lehenengo gauza) , ekonomikoa eta materiala eskaintzen duen esparru naturala. Balioak gordetzeko eta zabaltzeko oinarrizko esparrua. Bere kideak hezi, trebatu eta motibatuzeko esparru pribilegiatua-> Familia da hau bermatzeko gai izan behar dena eta familia gai ez denean Estuaren menpe geratzen da. (Nazioarteko Familiaren Urtea, 1994)

1.1.2.6. KONTZEPTUA: BEGIRADA *SISTEMIKOA

Kanpora eta barrura begira dagoen sistema, autoerregulatua, eta funtzio ezberdinen arabera garatzen dena: senideen bizi-irautea, bakoitzaren beharrak asetzea.

**Sistemiko: Unitate konplexu moduan ulertzea sistema, sistema (mugak, antolaketa erak, balio ...) osatzen da*

Begirada sistemikoaren **baldintzak**:

- Familiaren egitura sistema soziokulturala da, eraldaketarako irekia dagoena.
- Familiaren garapenaren arabera, etapa ezberdinak pasatzen ditu, berregituraketa beharrezkoa izanik.
- Familia ingurunearen baldintzetara egokitzen da. Jarraipen bat izanik, kide bakoitzaren hazkunde psiko-soziala bultzatzen da.

Familiaren **izaera** bikoitza:

PRIBATUA: Bere kideen banakako beharrak asetzea

PUBLIKOA: Bere kideen gizarteratze funtzioa eta balio eta jarrera arauen transmisioa.

1.1.3. FAMILIA EREDUAREN ALDAKETA: familia eta elkarbizitza unitate berriak (MOTAK)

1.1.3.3. ALDAKETA LEGALAK

- 1978ko Espainiako Konstituzioa.
- 1979ko Gernikako Estatutua
- Bestelako arauen aldaketa (seme-alabekiko ardura partekatua, guztien eskubideak)
- 1981ko banantze eta dibortzioaren legea. (Garrantzitsua)
- 1985ko haurdunaldiaren borondatezko etenerako legea. (pasadan urtean moztu zuten eskubidea)
- 2005eko Dibortzioaren erreforma.
- Izatezko bikoteen Erregulazioak.

Badaude lege batzuk familia babesten, defendatzen dutenak eta beste batzuk familia goraiatzeko dutenak (familia tradizionala kasu).

Beste batzuk ordea familia mota anitzak.

- (2005 ≈) Sexu bereko pertsonen ezkontza.
- Seme alaben ardura partekatua.

1.1.3.1. ALDAKETA DEMOGRAFIKOAK

- Mugikortasun geografikoak
- Jaiotza-tasaren beherapena.
- Heriotza-tasaren \downarrow eta bizi-itxaropenaren \uparrow
- Ezkontzaren beherapena eta atzerapena.

Familia gutxiago eraikitzen dira

1.1.3.2. ALDAKETA SOZIOKULTURALAK

- Emakumearen rol sozialaren eraldaketa.
- Familia-ereduaren demokratizazioa
- Familia tamainaren murriztapena
- Elkarbizitza eredu berriak

1.1.3.4. BESTELAKO ALDAKETAK

- Familiaren funtzio berriak
- Funtzio pribatuak eta publikoak
- Familia sareak
- Familiaren oinarri biologikoen aldaketak ...
-

1.1.4. AZTERGAI NAGUSIAK FAMILIEKIN GIZARTE ESKU-HARTZEAN

1.1.4.1. EGUNGO ALDAKETAK – GIZARTE LANGINTZA

Familiaren funtzio eta rolen aldaketak.

Pertsona bakarreko familiak eta gizarte-laguntza zerbitzuen igoera. Gurako bakarreko etxebizitzak / familiak zein adingabeei erantzuteko programen igoera.

Familiaren demokratizazioa, usadio eta ohituretan.

Familiaren garrantzia, babes sozialeko programei sorturiko “sare sozial alternatiba” bezala (Eskoletako guraso elkarteak).

1.1.4.2. FAMILIA MOTAK

- FAMILIA HEDATUAK
- FAMILIA NUKLEARRAK (postnuklearrak)
- GURASO BAKARREKO FAMILIAK
- FAMILIAREN NUKLEORIK GABEKO FAMILIAK
- PERTSONA BAKARREKO FAMILIAK

- PERTSONA ASKOTARIKO FAMILIAK
- BERRERAIKITAKO FAMILIAK

1.1.4.3. FAMILIAREN FUNTZIOAK

Asko sinplifikatzen, egoera desberdinak ematen dira familietan:

INTRINTSEKOA: edo bere kideekiko begira. Pertsonen arteko lokarri intimoa. Seme alaben zaintza eta mantenu biologikoa eta psikologikoa. Sozializazioa, familia eta gizartearen eredu kulturalak jarraituz. Balioen esleipena. Ekoizpena eta kontsumoa, unitate domestikoa txiki bezala Seme-alaben prestaketa euren unitate familiarak izateko

KANPOKOA: edo gizartearekiko begira. Seme-alaben ordezkari gizarteari begira. Bizi kalitatearen hobekuntzaren laguntza (berea eta berea ez dena). (Pozik egotea, jateko izatea, formakuntza ...) Komunitateko beste familiekin harremana eta laguntza

Familia **Funtzionamendua** behar diren **ekintzak:**

Kontrola; Rolak banaketa; Gatazken konponketa; Garapen pertsonala

Familia batzuk funtzionatzen dute eta beste batzuk ez, normalizatu beharra dago familiak ez funtzionatzearena. Hauek izango dira G.Zetara hurbilduko direnak.

1.1.4.4. FAMILIAREN BIZITZA ZIKLOA

- BIKOTEAREN ERAKETA
- FAMILIA SEME-ALABA TXIKIEKIN
- FAMILIA SEME ALABEKIN ESKOLA-ADINEAN EDO NERABETASUNEAN.
- FAMILIA SEME-ALABA HELDUEKIN
- SENAR-EMAZTEAK BAKARRIK
- BIZITZAREN AZKEN URTEAK

Lagunak familiaren ordezkia egiten, eratzen dituzu baina ez dira familia.

1.1.4.5. FAMILIAREN EGITURA

EZKONTIDEEN - BIKOTEAREN AZPISISTEMA

Lokarri afektiboak osaturiko bikotea, komuneko helburu eta interesekin. Beste azpisisistemetatik babesten da.

GURASOEN AZPISISTEMA

Bikotea gurasoen paperean, lokarri afektiboa eta psikologikoa seme-alabekin. Babesa eta heziketa funtzioa.

AZPISISTEMA FILIALA

Seme-alabek osaturiko sistema, gurasoekin lotura izanik, gurasoak zahartzen direnean euren babesa eta zaintza dute.

SEME-ALABEN AZPISISTEMA

Seme-alaben arteko sistema, berdinen arteko lehenengo esperientzia. Negoziatzen, kooperatzen eta norgehiagoka aritzen ikaste dute.

1.1.5. FAMILIEKIN GIZARTE ESKU-HARTZEKO EGOERAK

1.1.5.1. GATAZKAK ETA FAMILIAREN DESANTOLAKETA

Aurreko begirunea. Gure iritzia, gure esperientzi eta bizipenak markatua. Ondo funtzionatzen duen eta ez duen familien ezberdintasuna ez datza arazorik ez izatean, baizik eta, konpontzeko gaitasunean. Familia guztiak gatazka egoerak pairatzen dituzte, eta batzuetan egoera horiek arazo sozialak dakartzate, esku-hartzea beharrezkoa izanik. Gizarte zerbitzuetara doazen familia guztiak ez dira arazotsuak, edo, arazo aniztunak baizik eta behar sozialak dituzten familiak.

Familiak ondo funtzionatzen du ... baldin eta:

Bere kideak ongizate egoeran aurkitzen dira, euren betebeharrak eta rola egokiak dira adina eta heldutasuna kontutan hartuz. Kideak, euren beharren arabera, aurrera joan daitezke eta familiaren sistemaren etapa ebolutiboak onartzen dituzte, burujabetza on batera heltzen.

1.1.5.2. GATAZKAK ETA FAMILIAREN DESANTOLAKETA ARRISKU FAKTOREAK

Ohizko gatazkak eta desantolaketa

1. Familiaren disoluzioa, banaketa, ezkontzaren baliogabetasuna, familiaren egoitza uztea, dibortzioa.
2. Hutsik dauden familiak (Elkar harremanik ez dagoenean, ez ikusi beraien artean ...).
3. Kanpoko krisiek sorturiko nahigabeko ez egotea.
4. Nahigabeko akatsak funtzionamenduan (alergiak izatea elikagaiei eta nahigabe ematea / kolpe bat eman ostean nahigabe, ospitalera eramanda medikuak tratu txarren kontrako protokoloa irekitzean)
5. Tratu txarrak emakumeari eta seme-alabei.
6. Zurztasuna

ARRISKU FAKTOREAK

BANAKAKOAK	FAMILIARRAK
<ul style="list-style-type: none"> • Adimen-koizente baxua • Gurasoen mendekotasuna • Buru-nahastea • Heldugabetasuna • Drogamenpekotasuna • Jokabide antisoziala 	<ul style="list-style-type: none"> • Seme-alaba asko jarraian • Autoritarismoa /laissez faire • Ereduen falta • Dinamika negatiboa • Urrakortasuna
SOZIO-KULTURALAK	INGURUNEOAK
<ul style="list-style-type: none"> • Maila kultural baxua • Ezegonkortasun ekonomikoa • Diru-sartze gutxiegi • Isolamendu soziala 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza faltan edo larria • Azpiegiturak faltan • Baliabide gutxiko gunea • Gune gatazkatsua

1.1.5.3. FAMILIA ARAZOANIZTUNA (REID ETA EPSTEIN, 1972)

50 hamarkadan jaiotako kontzeptua, herrialde anglosaxoietan. Gizarte Langintzako teorian erabilia, ezaugarri zehatz batzuk betetzen dituzten familiak:

- Pobrezi handia,
- Disfuntzio larriak,
- Arazo estrukturalak,
- Seme-alabak hezteko rolen desegituraketa,
- Seme-alaben arduragabekeria eta desbideratua azaltzen dute, denboran utzikeria, batzuetan seme-alaben tratu egonkorrak eta nahiko larriak kanpoko txarrak eta abusuak,
- Gizarte zerbitzuekin arazo ezberdin asko,
- Aldaketarako motibazio eza,
- Laguntza jasotzeko jarrera ezkorra,
- Bi senidek edo gehiagok jarrera desbideratua azaltzen dute, denboran utzikeria, batzuetan seme-alaben tratu egonkorrak eta nahiko larriak kanpoko laguntza izateko moduan.

1.1.5.4. FAMILIA ARAZOANIZTUNAREN EZAUGARRIAK (CANCRINI, 1991)

1. Bi senidek edo gehiagok jarrera desbideratua azaltzen dute, denboran egonkorrak eta nahiko larriak kanpoko laguntza izateko moduan.

2. Familiaren "elikadura emozionalaren" alderdi afektiboa betetzeko ezgaitasuna, batez ere gurasoen partetik, elkarbizitza familiarraren garapen egokia bermatzeko.

3. Lehenengo eta bigarenaren elkarrekiko ahalegina

4. Mugak ez daude argi eta garbi, oso irekiak. Arazorik gabe sartzen zaren familia da.

5. Baliabideak ematen dituzten gizarte zerbitzuen mendekotasun kronikoa. Mendekotasuna elkarrekikoa da.

6. Drogamenpekotasunen jarrera sintomatikoen garapena, askotan soziopatia batekin loturikoa.

Reid eta Epstein / Cancriniren arteko ANTZEKOTASUNAK eta DESBERDINTASUNAK

1.1.5.5. FAMILIA ARAZOANIZTUNAREN TIPOLOGIAK

Ez dago familia arazoaniztasunaren eraketa eta egituraketa bakarra, gertakari konplexu baten aurrean gaude eta. Cancriniren arabera:

- | | |
|-----------------------|----------------------------|
| 1. ALDIRIKO AITA | 3. EMAKUMEA BAKARRIK |
| 2. BIKOTE EZEGONKORRA | 4. HARRI BIHURTAKO FAMILIA |

Ranqueten (1996) arabera:

- | | |
|---------------------------------|---------------------|
| 1. Aurreikusten ez duen familia | 2. Familia asoziala |
|---------------------------------|---------------------|

1.1.5.6. FAMILIAREN FUNTZIONAMENDUAREN DIMENTSIOAK

- | | |
|----------------------|-----------------------------|
| • KOMUNIKAZIOA | • PARTAIDETZA ETA HARREMANA |
| • GATAZKAK | • ITUNAK ETA KOALIZIOAK |
| • ARAZOEN KONPONKETA | • MUGAK |
| • KONTROLA | • MITOAK ETA SINESMENAK |
| • MALGUTASUNA | |

1.2. GIZARTE LANGINTZAREN JATORRIA ETA GARAPENA. OBJEKTUAK ETA BERE ERREFERENTEAK

1.2.1. Kontzeptuak

SWITHUN BOWERS – 1949

“*Casework*” arte bat da, non giza harremanen zientzia eta harreman horien lanketa sortzen da.

Gizakiaren potentzialtasuna eta erkidegoaren baliabideak jolasean ipintzeko erabiltzen da, hiritarraren ingurumenerako edo bere zati baterako

egokitzapena bultzatu nahian. Zientzia eta harreman horien lanketa sortzen da. Gizakiaren potentzialtasuna eta erkidegoaren baliabideak jolasean ipintzeko erabiltzen da, hiritarraren ingurumenerako edo bere zati baterako egokitzapena bultzatu nahian. Gizarte zerbitzuak pertsonalitatea

MARY RICHMOND - 1962

Gizarte zerbitzuak pertsonalitatea garatzen du, hiritarra bere ingurune sozialera kontziente edo arduragabe egokituz, elementuen multzo eta baldintza bailiran bezala.

MARY RICHMOND – 4 esku-hartzeen konbinazioa

- Banakotasuna eta ezaugarri pertsonalen ulermena.
- Ingurune sozialaren ulermena eta bere eragina.
- Gizarte langintzaren “mentalitatea”
- Ingurune sozialaren ekintza ez zuzena

MARY RICHMOND – Esku-hartzearen oinarriak

- Pertsonarekiko errespetua.
- Apaltasuna. (Gu ez daukagu beste pertsonaren aldaketaren boterea)
- Erronkak estimulatzea.
- Laguntza materiala bultzada bezala.
- Baliabide guztien parte hartzea.
 - inplikaturiko nozioak
 - banan-banako prozesua
 - diagnostiko soziala (diagnostiko giltza bakarrik suspertzaileak)
 - garatutako harremanaren garrantzia (Ez dago gizarte langintza harremanik gabe)

L. BRAY , 1966

Diagnostiko sozialera garamatzen kasuen prozesua da, Informazio bilketa, teknika ezberdinen bitartez: – Elkarrizketa eta – Datuen kontrastearen bitartez. Inferentziak edo ondorioak – Interpretazioa

M. MOIX, 1991(Gizona)

Jendeari bere kabuz laguntzen lagundu behar diogu, asistentzialismoa ekiditeko. Metodo psiko-soziala, elementu psikologikoak eta sozialak bi esparruak jorratzen dira. (Alkoholismo kasua adibidez)

C. DE ROBERTIS, 2003 (Emakumea)

Esku-hartze metodologia bat non pertsoneri bakarka erantzutean datza. Bere egoera ezagutu diagnostiko ebaluatzaile on bat egiteko, horrela bere garapen pertsonala eta soziala bultzatzen duen esku-hartze egokia egin ahal dugu. Esku-hartze hori bere arazoak konpontzeko lagungarria da.

AMAITZEKO

Esku-hartze metodologia bat pertsonalitatea, beharrak eta baliabideak ulertzeko. Garapen pertsonala errazten du (autonomia, harremanetarako, formakuntzarako ... gaitasunak). Ingurune politiko eta burokratiko batek eraginda. Gertakari konplexua, dinamikoa, sistematikoa eta ebolutiboa. Hau harreman profesionala egiten du. Aholkularitza, informazioa eta esku-hartze prozesua (laguntzea egoerako kasuetan).

SINTESIAN

Gizarte langilearen esku-hartze prozesu sistematizatua banakako edo familiako behar egoera baten aurrean. Baliabide pertsonalak eta instituzionalak mugitzen ditu, pertsonaren errealitatea eraldatzeko, hiritar bezala eskubide sozialak bermatuz.

1.2.2. Objektua, helburuak eta funtzioak

Banakako eta familia behar egoeran, laguntza behar edo eskatzen duena.

OBJETKTUA

Banakako eta familia behar-egoeran, laguntza behar edo eskatzen duena

Banakako

Pertsonaren ikuskera gizaki biologiko, psikologiko eta soziala bezala, ingurunearekin interakzio iraunkorra du.

Ingurunea ezinbesteko elementua bihurtzen da gizakia bere gaitasunen garapenik altuena lortzeko.

>Amaia Ituarte, 1992<

Familia

Odolez, ezkontzaz edo adopzioz elkartutako pertsonak sortzen duten gizarte taldea.

Ezaugarri nagusiak:

Egoitza komuna, elkartasun ekonomikoa, ugalketa eta ondorengoaren zaintza.

>Iglesias de Ussel, 1988<

Behar-egoera

Ingurune sozio ekonomikoa eta politikoaren arabera

Beharra ≠ Eskaera. Eskatzen dena eta behar dena ez datoz bat askotan erabiltzailearen ezjakintasunagatik. ("garun paralisia" duen pertsonaren mugikortasun egoera konpontzea; Anak ordea laguntza ekonomikoa eskatzen du).

HELBURUAK

- Erabiltzailea/Hiritarra/Herritarra/Bezeroak bere baliabide (material, psikosozialak) mugi ditzan lagundu eta arazoarekin nola elkartu eta konprometitu daiteken erabaki batera heltzeko.
- Hiritarra garatzeko metodo zehatz bat bultzatu, bere pertsonalitatea eta jokaera indartuz, eta etorkizunean besteekin izan ditzaken arazoei aurre egiteko gaitasunak jorratu.

>Hellen Cassidy, 1962<

HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Banako gaitasuna landu bere garapen prozesuan integratzeko.
- Bere ingurune bio-sozialean integrazioa bultzatu.
- Baliabide eta zerbitzuak eskuratzea erraztu.
- Behar-egoera batetik ateratzeko gaitasunak suspertu.
- Bere ingurunearekin harmonikoak ez diren jarrerak aldatzeko laguntza eman.
- Beharrezkoak diren baliabideak eman.

>Escartin, Palomar eta Suarez, 1997<

FUNTZIOAK

- Erabiltzailearentzat beharrezkoak diren gauzak egin.
- Erabiltzaileari bere kabuz gauza horiek egiteko laguntza eman.
- Erabiltzailearengan maisutasuna eta konfiantza ezaugarri pertsonalak eraikitzen lagundu.

>Helen Cassidy, 1962<

- Zuzentzailea.
- Sendatzailea
- Informatzailea
- Prebentzioa
- Orientazioa
- Gaitzea – Trebakuntza
- Promozioa (Komunitate maila, garapen maila ...)

>Escartin, Palomar eta Suarez, 1997<

1.2.3. Erreferente epistemologikoak

POSITIBISMOA

HELBURUA

- Zientzia metafisikatik aldendu, espekulazioa eta “ez zientifiko” baztertuz.

OINARRIZKO PREMISAK

- Zientzia soziologikoaren helburua, gizartearen ordenaren berreraikuntza izango da. Gizartearen desordenagatik, bere ordena, kontsentsua eta giza oreka kolokan egon daitezke.
- Gatazkak eta desoreka eta desberdintasun bezela ulertzen dira.
- “Datuen filosofia” bezala ulertzen da, gertaerak legea bihurtzen direlako, “ulergaitza dena” baztertuz.
- Benetako ezagutza bakarra ezagutza zientifiko da (monismo metodologikoa): teorien baieztapen positiboa metodo zientifikoaren bitartez.
- Ekintza filosofiko eta zientifiko guztiak esperientziaz baliozkotu daitezken benetako gertaerekin garatu behar dira.

POSITIBISMOA – KRITIKAK ARRAZIONALISMO KRITIKOA

- Ikertzailea – subjektua eta ikertzen den objektuaren banaketa, pertsonak barnek (kosifikazioa)
- Ezagutza zientifiko osa enpirismoan oinarritzea ezinezkoa bihurtza da. (K. Popper)
- Kritikaren idazle garrantzitsuenak: Lakatos, Khun edo Feyerabend.
- Alemanian, epistemologia hermeneutikoa sortzen da.
 - Natur zientzien metodoa ez da egokia objektua ezagutzeko (gizartea, gizakia, kultura)
 - Objektu hauek nahitakotasuna, auto-gogoeta zaletasuna, eta esanahien sorkuntza dute.

POSITIBISMOA PRAGMATISMOA - FUNTZIONALISMOA

- Ikertzailea – subjektua eta ikertzen den objektuaren banaketa, pertsonak barnek (kosifikazioa)
- Ezagutza zientifiko osa enpirismoan oinarritzea ezinezkoa bihurtza da. (K. Popper)
- Kritikaren idazle garrantzitsuenak: Lakatos, Khun edo Feyerabend.
- Alemanian, epistemologia hermeneutikoa sortzen da.
 - Natur zientzien metodoa ez da egokia objektua ezagutzeko (gizartea, gizakia, kultura)
 - Objektu hauek nahitakotasuna, auto-gogoeta zaletasuna, eta esanahien sorkuntza dute.

POSITIBISMOA FUNTZIONALISMOA

- Positibismoak, filosofiaren doktrina bezala, pentsamendu funtzionalistan eragina izan zuen.
- Beranduago amerikar pragmatismoaren eskutik gizakiaren moldaketa errealitatera etorri zen. Egiaren froga, bere erabilgarritasun praktikoa da.
- 1930an sorturiko eskola funtzionalista amerikarra, Talcot Parson-en oinarritua (baita ere Herbert Spencer eta Robert Merton)
 - Gizartearen egonkortasunean ipintzen du arreta.

POSITIBISMOA – PRAGMATISMOA – FUNTZIONALISMOA ETA GIZARTE LANGINTZA

- Positibismoak zera uste du
 - Natur zientzietan, bereziki, fisikan eta matematikan oinarrituz, beste zientzia guztiak
 - Gizarte Zientziak barne, neurtzeko eredu metodologiko bat proposatzen du.
 - Gizarte Langintza fisikalistak giza arazoa lantzen du, modu objektiboan jar daitekeena kontutan harturik bakarrik.
- Funtzionalismoak, zera uste du
 - Instituzioek gizartean duten indarraren arabera azaltzen du gizarte arazoa.
 - Gizarte arazo partikular batek armoniozko oreka bat sortzen baldin badu, funtzionala izango da.

- Baina oreka apurtzen baldin bada, disfuntzionala izango da
- Gizarte langintza funtzionalak ordena bilatzen du, kontsentsua.
- Helburua: gizarte ordenaren berreraikuntza bilatu.

POSITIBISMOA – PRAGMATISMOA – FUNTZIONALISMOA ETA GIZARTE LANGINTZA

(I)OBJEKTUA: Pertsona eta talde desorekatuak, disfuntzionalak

Banakako edo taldeko mailan, doikuntza metodoak (ajuste) bilatuko dira. Gizarte funtzionamendua hobetu edo konpontzeko.

Hellen Harris Perlman, 50 hamarkadan, horrela definitzen du BGL,

Gizakiari bere gizarte doitze prozesuari aurre egiteko langintza. Bere oztopoak, frustrazioak, moldatu ezinek bere bizitzaren egokitzapena oztopatzen dute, edo lortzeko esfortzuaren eraginkortasuna gutxitzen dute.

Friedlander (1961): gizakiari bere giza harremanetan lagundu, bizitza erabilgarria eta gogobetekoagoa eraman ahal izateko

MARXISMO, FILOSOFIA KRITIKOA ETA GIZARTE LANGINTZA

(II) OBJEKTUA: ZAPALKUNTZA SORTZEN DUEN GIZARTE OREKA

- Hego Ameriketako birkontzeptualizazio mugimenduarekin loturik. Marxismo eta filosofia kritikoaren garapenarekin ere.
- Ipar Amerikak sorturiko inperialismoaren kontrako “kasuzko gizarte langintza” ... herri laikoko opioa
- Kontzeptu funtzionaletik – egokitu gabeko subjektua – zapalduta dagoen subjektura pasatzen gara.

MARXISMOA ETA TEORIA KRITIKOA

Teoria Kritika Teoria Tradizionalaren aurka doa, positibismoaren aurka, argudio hauekin

- a) Gizartearen ordenan interes ezberdinek orientatzen dute zientzia.
- b) Ordena teoriko kognitiboan, banaketa bat egiten da: ezagutzen duen subjektua eta objektuaren artea. Premisa hauekin, zientzia positibistak aurretik ezarritako ordena mantendu eta errepikatzen du.

Bere helburua: Orden zapaltzailearen eraldaketan lagundu. Frankfurteko Eskola (Horkheimer, Adorno, Marcuse , Habermas)

MARXISMOA ,TEORIA KRITIKOA eta GIZARTE LANGINTZAREN BIRKONTZATUALIZAZIOA

Hego Amerikan 60 hamarkadan sorturiko kontzeptuak, “Herria zapalduta dago”
“jabetzarik gabeko masen alienazioa”

1979 – Ezequiel Ander Egg

- Gizarte Langintzak herriaren kontzientziazio, mobilizazio eta antolaketa funtzioa dauka.
- Pertsonak, taldeak eta komunitateen auto-garapenerako gizarte langintza bultzatzen dugu, euren partaidetza aktiboarekin.
- Zapalkuntza eta giza baztertze egoera batetik partaidetza egoera batera murgildu behar dugu herria, bizitza politiko, ekonomiko eta sozialean parte hartzeko.

Hori guztia, gizakia izateko gutxienezko baldintzak sortu ahal izateko.

MARXISMOA ,TEORIA KRITIKOA eta GIZARTE LANGINTZAREN BIRKONTZATUALIZAZIOA

70 Hamarkada – Boris de Lima

“Gizarte errealitatea eraldatzeko proiektu egokiak garatzeko aukera bakarra: Gizarte Langintzak eguneroko bizitzaren berezko ezagutza zientifikoa garatzeko gaitasuna azaltzen duenean”

Berez, objektu bera, ekintzaren subjektua bihurtzen denean

ZIENTZIA, ESTRUKTURALISMOA ETA GIZARTE LANGINTZA KRITIKOA

- XX mendeko pentsalari gehienek marxismo eta estrukturalismoaren arteko harremana aurkitu zuten.
- Gizarte Langintzari ez zaio banakako gizakia modu independentean interesatzen, baizik eta klase egitura batean, non gatazkak, desorekak eta gizarte arazoak sortzen dira (Boris de Lima)

Egin daitezken kritikak: “misiolariaren mezua” – “kontzeptu elitista”

(III) OBJEKTUA – BEHAR SOZIALAK ARAZO SOZIALAK

- 60 hamarkadan hasita, Gizarte Langintzaren literaturan kontzeptu berriak agertzen dira.

– Arazo soziala eta behar soziala berdin erabiltzen dira.

- Bilakaera hau banakako gizarte langintzatik, dimentsio soziala handiago dan gizarte langintza batera doa.

- Baina arazo hitza oraindik oso lotuta dago patologia eta banako gaixotasunarekin.

- Behar sozialen kontzeptua gizarteak betetzeko - asetzeko beharrarekin lotuta dago.

(TERESA ZAMANILLO)

(III) OBJEKTUA – BEHAR SOZIALAK ARAZO SOZIALAK

Neopositibismoa, neopragmatismoa, ingenieritza soziala

Arazo sozialen azterketan mugimendu bat dago: Lehen: etiketak, pobreak, desabantaila, gabezi soziala.

.... Mugimendua

Gizakiaren ardura edo familiarena. Horregatik planteatzen ditugu, behin eta berriro, pertsonak bere funtzionamendu soziala berreskuratzeko helburuak.

(III) OBJEKTUA – BEHAR SOZIALAK ARAZO SOZIALAK

Neopositibismoa, neopragmatismoa, ingenieritza soziala

90 hamarkadan, Moix irakaslearen arabera:

- Gizarte langintza - laguntza teknikoa suposatzen duen ekintza.

- Pertsona, talde eta komunitateetan garatzen dena, euren funtzionamendu sozialen hobeto egoteko, euren barruko eta kanpoko baliabideak sustatuz, eta bakarrik gizarte zerbitzuekin lotuta daudenak kontutan hartuta.

Patrocinio Las Heras eta Elvira Cortajarenaren arabera:

- Behar sozialak eta baliabide sozialen bikotea da gizarte langintzaren esku-hartze esparrua objektibatzen duena.

KRITIKAK:

90 hamarkadan, Angel Acebok: “baliabideen administrariaren” rolaren salaketa

Baliabideen administraria:

Pertsonak kontatu behar diguna, faltatzen zaiona da.

Guk behar hori nola bete badakigu eta.

Baina Nahi izandako objektibotasuna burokraziarekin lotuta dago, eta baldintza estrukturalek sortzen duten bazterkeri soziala modu aseptikoan tratatzen du. (Aretio Romero, M.A, García Ramírez M.A. et al, 2009)

Gaur behar – baliabideen bikote hori baliabide-baliabide bihurtu da

Ingenieritza soziala eta plangintza lotuta daude. Plangintzak definitzen ditu behar sozialak (Plan Concertado de prestaciones sociales básicas, 1995, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak)

ARAZO SOZIALAK

N. Aylwin de Barros (1980),

Gizarte Langintza teknologia soziala da, Gizarte Zientzien ezagutzak aplikatzen dituelako errealitate sozialean.

Zientifikoki aurre egiten die arazo praktikoei eta horrela ezagutza berriak sortzen joaten dira, eta hauek berriz ere, gizarte zientzietarako ekarpena bihurtzen dira.

Arazo sozial zera da:

“Gizarte baten bere kideen beharrak asetzeko dagoen zailtasuna”

90 hamarkadan, M^a Jose Escartinen arabera:

Arazoak konpontzeko prozesua, erabiltzaileekin beharrezkoak diren ezagutzak, balioak eta trebetasunak erabiliz. (Escartin, 1992:13)

(III) OBJEKTUA – BEHAR SOZIALAK ARAZO SOZIALAK

Neopositibismoa, neopragmatismoa, ingenieritza soziala

KRITIKAK:

Batzuetan herritarrak ahaztu egiten dira.

Eurak dira ekintzarako estrategiak eraikitzen dituztenak.

Euren gaitasunak, aukerak, nahiak, erabakiak... dira kontutan hartzen.

Autonomia erlatiboarekin erabakiak hartzen dituzte.

Ardura politikoak ahaztu egiten dira, eta itsu gelditzen gara botere harremanen aurrean.

Non daude arazo sozialen oinarri ekonomikoak eta estrukturalak?

Analisi historiko-dialektikoak ahaztuta.

Ekintza kolektiboak?

Partaidetza?

Sistema aldatzeko ideiak, aldekata beharretara egokitze eta ez alderantziz? =

Ahaztura hau....Marxismoaren kontra ote?

(III) OBJEKTUA – BEHAR SOZIALAK ARAZO SOZIALAK

Neopositibismoa, neopragmatismoa, ingenieritza soziala

KONTRA-KRITIKA EDO APUNTE BAT :

Beste autore batzuk, berriagoek...Ian Gough, Len Doyal, Amartya Sen y Manfred Max Neef zera planteatzen dute:

- Beharrak sistema kapitalistaren exigentzi bezala, eredu ekonomiko nagusia izateagatik.
- Ondasunak eta zerbitzuak beste modu baten sortu eta banatu daitezke, batez ere beharrak asetzeko.

(IV) OBJEKTUA

ahultasun – kalte psikosoziala sorzen dituzten egoerak – Giza Eskubideak eta Eskubide sozialen Urraketa

ERREFERENTZIAK

1.3. PERTSONEKIN ETA FAMILIEKIN ESKU HARTZEKO GIZARTE LANGINTZAREN OINARRIZKO PRINTZIOAK.

PRINTZIOAK

OROKORRAK	ESPEZIFIKOAK
Edozein gizarte egoera batean erabiliak	Kasuaren diagnostikoan harremana sendotzen denean agertzen dira
ONARPENA KOMUNIKAZIOA BANAKAKO BEREIZKETA PARTAIDETZA KONFIDENTZIALTASUNA AUTOKONTZIENZA	Gizarte langileak informazio nahikoa duenean kasuari buruz. H.S., Mass, 1958

ESKU-HARTZEKO OINARRIZKO PRINTZIOAK

BIESTEK, 1957	BUTRYM 1976	BRILL (1973)	MOIX, 1995	BANKS, 1995
<ul style="list-style-type: none"> Banakako bereizketa Sentimenduen adierazpen esanguratsua Inplikazio emozionala kontrolatua Onarpena Anti-kontrolaren jarrera Autodeterminazioa Konfidentzialtasuna 	= = = = = = Pertsonengako errespetua	Harremana elkarrekin onartuta Harreman dinamiko Harreman emozionala Harremanaren helburua argia, denboran mugatua eta ezberdina. Harreman zintzoa, errealista, arduratsua eta ziurra. Autoritatezko harremana.	Onarpena Autodeterminazioa	<ul style="list-style-type: none"> Gizakiaren, taldeen eta komunitaten eskubideak errespetatu eta bultzatu. Ongizatea sustatu Berdintasuna harreman profesionalean Justizia soziala.

FITS – GIZARTE LANGINTZAREN NAZIOARTEKO FEDERAKUNDEA

Autodeterminazioaren eskubidea errespetatu.

Partaidetzaren eskubidea bultzatu.

Pertsona bere osotasunean ulertu.

Pertsonen indarrak identifikatu eta garatu.

1.4. BANAKAKO ETA FAMILIAKO MAILAN DAUDEN ESKU-HARTZE EREMU EZBERDINAK

1.4.1. Esku-hartze ikuspuntu ezberdinak

- Beharren gatazkei aurre egiteko esku-hartzea.
- Arazoak konpontzeko prozesuaren esku hartzea.
- Transakzio harremanen partaidetza bezalako esku-hartzea

BEHARREN GATAZKEI AURRE EGITEKO

- Gizakiaren oinarrizko beharrak asegabetuta daudenean.
 - Beharrak
 - Eskubide sozialak
- Beharrak eskubideak bihurtzen dira.
 - Bizitza kalitatea
 - Herritartasun eskubideak
- Bilakaera historikoa

ARAZOAK KONPONTZEKO PROZESUA

- Pertsonaren errespetuan eta autonomiaren bultzadan oinarrituz, pertsonaren indarrak berpiztu.
- Gizartearen baliabideak eskuratzeko laguntza teknikoa.
- Gizakiaren funtzionamendu soziala gizartean – arazoa.
- Prozesu ordenatua, planifikatutako aldaketaren bila.
- Laguntza harremanaren garrantzia.
- EZAGUTZAK – BALIOAK – TREBETASUNAK integrazioa

INTEGRAZIOA

EZAGUTZAK	BALIOAK	TREBETASUNAK
<ul style="list-style-type: none"> • Giza zientziak: Psikologia, soziologia, antropologia. • Zuzenbidea, Ekonomia, Antropologia. • Egoera sozialak eta elkarreraginak • Laguntza-harremanaren teoria-praktika. • Ezagutza 	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsona • Gizarte demokratikoa. • Instrumental, jardute profesionalerako 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa biltzen • "Ni" profesionala garatzen. • Jardute profesionalerako pertsona, talde eta komunitateekin. • Kognitiboak • Elkarreraginerakoak.

TRANSAKZIO HARREMANEN PARTAIDETZAN

- Pertsonen arteko elkarreraginean ipintzen da arreta. Bornfenbrenner (1987)

Gizakia sistema ba da bere maila txikienean, baina kiribila jarraituz, beste batekin dago harremanetan:

- Mikrosistemak: Familia, berarekin bizi direnak, lagunak, auzokideak, lagunak, etab.
- Meso-sistema: mikrosistemen harreman sarea.
- Exosistema – erakunde sozialak eta komunitatea.
- Makrosistema: Eragile sozialak, ekonomikoak, kulturalak
- Sistema baten aldaketak bestearena dakar.

1.4.2. Esku-hartze maila ezberdinak

- Lagunak dira, pertsona bere osotasun integral eta konplexuan.
- Harreman estu bat pertsonarekin – urrutiago dagoen harremanera
- Banakako egoerari aurre egin eta globalagoa den maila ahaztu gabe.

• MIKROSOZIALA

Pertsonak, familiak, talde txikiek aurkezten dituzten arazoei aurre egiteko.

• MIKROSOZIALA

Erakunde, komunitate eta testuinguru sozialetan egiten da lana, bertan azaltzen direlako pertsonen gizarte ongizaterako eragile negatiboak.

ESKU-HARTZE MIKROSOZIALA: helburuak

- Egoera-arazoaren eragileak ikertu.
- Egoera arazoak azaltzearen prebentzioa.
- Familia zein taldearen barruan sortzen diren transakzioak hobetu.
- Inguruarekiko pertsonen egokitze prozesua edo hobekuntza ahalbidetu.
- Pertsonen, familien eta taldeen harreman sareak indartu eta berreraiki.
- Pertsona, taldeen eta familien partaidetza aktiboa bultzatu.
- Behar berriei buruzko konklusioak ateratzen.
- Ongizate erakundeei politika sozialerako proposamen berriak bidaltzen.

MOTAK

ZUZENA (erabiltzailearekin)	ADIBIDEAK
<ul style="list-style-type: none"> • Erabiltzaileen gaitasunekin esku-hartu, baliabideak erabiltzeko. • Krisi egoeretan esku-hartu • Laguntza profesional espezifikoa. • Aholkularitza. • Eginkizun edo ekintzetan esku-hartu. • Prozesuen zuzendari edo kontrola. • Erabiltzailea eta testuinguruaren arteko tartekaritza. 	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketak • Taldeko lana • Informazioa, orientazioa, deribazioa • Telefonozko arreta • Etxeko bisitaldiak • Diagnosiaren balorazioa • Esku-hartze planen negoziazioa • Ingurune sozialarekin harremanak

MOTAK

EZ- ZUZENA (erabiltzailerik gabe)	ADIBIDEAK
<ul style="list-style-type: none"> • Lanaren egituraketa: Antolakuntza / Dokumentazioa. • Pertsonekin eta Erakundeekin • Bestelako profesionalekin 	<ul style="list-style-type: none"> • Administrazio lanak • Informeak, fitxa sozialak eta historia sozialak lantzea • Beste profesional batzuekin bilerak • Erabiltzaile ez diren pertsonekin telefonozko harremana • Autoformazio zereginak • Hitzaldiak antolatzea • Prebentzio edota sustatze kanpainak antolatzea • Baliabide sozialak ezagutzea • Egunerokoa burutzea • Baliabide eta prestazioak tramitatzea • Proiektu eta memoriak egitea • Formazio ikastaroak ematea • Ikasleen praktikak gainbegiratzea • Beste profesional batzuek gainbegiratzea • Ikerketetan parte-hartzea edo egitea

ESKU-HARTZE MAKROSOZIALA: helburuak

- Komunitatean edo gertuko testuinguru baten agertzen diren egoera arazoan eragile kulturalak, sozialak, demografikoak eta ekonomikoak ikertu.
- Egoera horietan agertutako baldintzak aztertu.
- Erakunde sozialei eta komunitateari bere arazoak ulertzen lagundu, baliabideak erabiltzen eta eurekin konektatzen. Horrela konponbideak proposatzeko aukera dute, egoera hobetzeko.
- Erakunde eta komunitate horietan esku-hartu, egoera-arazoei aurre egiten, eta, konpontzen, ondorioak gutxitzen.
- Ongizate Erakundeak zuzendu.
- Programa sozialak ikertu, planifikatu, zuzendu, administratu.
- Gizartean sortzen diren baliabide instituzionalak bultzatu.

1.2.4.3. Esku-hartzea arazoan egoeraren arabera

• LEHEN MAILAKO ESKU-HARTZEA

Egoera-arazo bat prebenitzeko edo oztopatzeko aurre ekintzak, arrisku egoerak gutxitzeko helburuarekin.

Lagunak dira, pertsona bere osotasun integral eta konplexuan.

• BIGARREN MAILAKO ESKU-HARTZEA

Dagoen egoera-arazoari aurre egin.

• HIRUGARREN MAILAKO ESKU-HARTZEA

Bigarren mailan baino txarrago dagoen egoera bati aurre egiten zaio, pertsonen funtzionamendua berreskuratzeko helburuarekin.

Arazoak konpontzeko estrategia intentsiboak behar dira.

HELBURUAK

LEHEN MAILAKO HELBURUAK

- Zailtasun sozial baten baldintzak sortzen duen egoeraren jatorria aztertu.
- Pertsona eta taldeen ezaugarriak ezagutu.
- Benetako eta potentzialeko beharrak ezagutu, bai banakako mailan zein taldekoan.

BIGARREN MAILAKO HELBURUAK

- Arazoan konponketa erraztu, pertsonen aurre egiteko eta garatzeko gaitasunak bultzatu.
- Gizarte sistemen eraginkortasuna eta funtzionamendua bultzatu.
- Baliabideak eskaintzen dituzten zerbitzuak eta aukerak pertsonarekin harremanetan jarri.

HIRUGARREN MAILAKO HELBURUAK

- Pertsonen birgaitze prozesua bultzatu.
- Egoera arazoaren handitzea saihesten lan egin.
- Krisi egoeraren gainditze prozesuaren garapenaren jarraipena.
- Krisi egoeran mantentzen diren pertsona zein familiekin esku-hartu.

2. GAIA. LAGUNTZAZKO HARREMAN PROFESIONALA.

2.1. DEFINIZIOA, OSAGAIAK, LEHENENGO KONTAKTUA ETA GARAPENA.

KONTZEPTUA

Laguntza harremana: Esku hartzeko tresna da eta harremana garatzeko laguntzen digu, elkarrekintza soziala da profesional eta bezero artean gauzatzen dena (Balioak, sinesmenak itxaropenak interesak).

(Raya E. 2011)

CARL ROGERS (psikologoa) KONTZEPTUA:

Pertsonaren baliabide ezkutuak hobeto estimatu eta adierazteko, eta euren erabilera funtzionala areagotzeko nahian batek sortzen duen harremana.

Emaitzak 1) Profesionalaren lana eta trebetasuna (bezero, erabiltzaile, hiritarrarekin) harremana sortzeko eta 2) Batek bere kabuz lorturiko garapena, hauen menpe dago.

5 BALDINTZA LAN HAU EGITEKO

- Benetakoa eta koherentea izatea.
- Bestearen balioa onartu.
- Enpatiaz beste ulertzea nahi izatea.
- Aurrean dugun pertsonak (erabiltzailea) bestea ulertzen du.
- Gardena izatea

LAGUNTZA HARREMANAREN HELBURUA

Erabiltzailea bere ahaleaginean lagundu berea den egoera hobeto ulertzeko.

Modu egokian bere arazoak konpontzeko gaitasuna hartu, bere trebetasunen garapena erabiliz: (Gaitasuna; Eraginkortasuna; Autonomia; Erantzukizuna)

LAGUNTZA HARREMANAREN HIPOTESIA

Pertsonak baliabideak ditu, bere burua hobeto ulertzeko eta bere portaera zein jarrerak hobeto ezagutzeko. . Honetarako martxan ipini behar dira laguntza harremana beharrezko baldintza da aldaketa sor dadin.

PRINTZIPIOAK

- Enpatia
- Errespetua
- Benekotasuna
- Zehaztasuna
- Alderatu – konparatu
- Bapatekotasuna
- Profesionalaren automanifestazioa.

ENPATIAREN DEFINIZIOO BAT

Pertsona baten egoera emozionala eta ideiak hauteman, ulertu, esperimentatu eta erantzun.

Enpatia

Bestearen sinesmen, sentimendu eta esperientzietan interesa izaten ahalegintzea. Sinpatiarekin ez du zer ikusirik, batzuetan berezkoa da gaitasun pertsonala, honetarako beharrezkoa dugun trebetasuna, gainbegiraketan geratzen dena. Aldi berean ariketa emozionala eta kognitiboa

2.2. LAGUNTZA HARREMANAREN EZAUGARRIAK

EZUGARRIAK

Terapia / Asistentzia

Testuinguru asistentzietan baliabide terapeutikoak erabiltzen den Laguntza esku hartzea (Escartina). Esku hartze terapeutikoa sufrimendua gutxitu, arindu edo kentzeko ekintza, aldaketa berpiztu edo erraztuz. (Sanchez)

Batzuetan badago jendea behar duena bultzada bata, Probokatutako Bultzatutako harremana, epaitegietatik datozen pertsonak edo beste esparrukoak.

HARREMANAREN EGITURAKETA

Denboran	Elkarrizketen erritmoa Elkarrizketen denbora Ekintzaren denbora osoa
Espazioan	Bulegoa Etxea Bestelako gune publikoetan
Helburuak	Esku-hartze prozesuan lehentasunak erabaki eta mugak ezarri

2.3. HARREMAN PROFESIONALEAN SOR DAITEZKEEN ARAZOAK.

Harreman profesionalean sortzen diren arazoen aurrean hiru esparru desberdin kontuan hartuko ditugu, hauek dira harremanean sortzen diren arazoei dagozkio inguruneak. 1) Bezeroari dagozkionak; 2) Profesionalari dagozkionak; 3) Gizarte Langintzaren konplexutasunari dagozkionak.

2.3.1 Bezeroari dagozkionak

Parte hartzeko kultura falta.

Aldaketari dion erresistentziagatik parte hartzerik ez.

Baliabideen erabilera handizkatua. Tresna nagusia pertsonak dira

Sentimenduen kudeaketa egin behar da eta sentimendu negatiboak zailtzen dute: Agresibitatea, sumindura, depresioa, beldurra edo antsietatea

2.3.2. Gizarte langileari dagozkionak

GIZARTE LANGILEARI DAGOZKIONAK

- Bezeroaren erabakiekiko profesionalaren jarrera

Garatu beharreko trebetasunak

Bakoitzaren burua eta balioak ezagutu.
Bakoitzaren harreman eta gatazka pertsonalak eta familiarrak garbi izatea.
Erabiltzailea eta gizarte langilearen arteko ezberdintasun kulturalak kontuan izan.
Bakoitzaren sentimenduak aztertzeko trebetasuna izan.
Etika eta arduraren zentzua izan.
Euste jarrera maneiatu

2.3.3. Gizarte Langintzaren konplexutasuna

Bertan inplikaturik dauden azpi-sistemak elkar eraginean sortzen diren arazoak.

- 1) Esku hartze nukleo ezberdinen artean eta 2) Jolasean dauden profesional ezberdinak kontuan hartu behar ditugu, esparru zein profesional bakoitzak bere
- 3) Ezaguera, trebetasun eta abileziekin elkarlanean ibiliko garelako.

2.4. HARREMAN PROFESIONALERAKO TEKNIKAK.

ESKU HARTZEKO TEKNIKAK (Eva)

IKERTZEKO TEKNIKAK	ESKU-HARTZEKO TEKNIKAK
<ul style="list-style-type: none">• Inkesta• Elkarrizketa sakona• Bizitza historia.• Behaketa zuzena• Eztabaida taldea• Teknika partehartzaileak: Delphi, Philips 6x6, Forum, Brainstorming	<ul style="list-style-type: none">• Elkarrizketa• Behaketa• Etxeko bisita• Teknika dokumentalak: Fitxa soziala, txosten soziala, historia soziala, ekomapa, genograma.• Bestelakoak: coaching, counseling, mentoring, terapia laburra, konponbideen terapia

2.4.1. Kontratua

Batzuetan behartuta egon gaitezke erabiltzera.

Ez da ohizkoa, baina teknika lagungarria izan daiteke.

Psikologia klinikan oinarritutako tresna, patologia ezberdinen tratamendu terapeutikoa egiteko: Drogamenpekotasunak, jatearen nahasmendua edo bikotearen arazoak.

Jarreraren aldaketa du helburu, aldaketan inplikatur dauden pertsonen arteko akordioa izanik.

Fernandez T (2011)

ZER DA KONTRATUA

Idatzizko dokumentua non esplizitua egiten den eta erabiltzaileak garatu behar dituen ekintzak eta hauek ez betetzearen ondorioekin baita ere.

Parte hartzen duten pertsona guztien akordioa da.

Sinatuta gelditzen da.

KONTRATUA KONTUAN HARTZEKOAK

Kontsentsura heldu behar dira inplikaturako pertsona guztiak.

Adostutakoarekin ondorio positiboak edo abantailak zehaztu behar dira.

Ez betetzearen ondorioak edo zigorrak argi gelditzen dira.

Erabiltzaileak adostutakoa soberan gainditu ezker, sariak aurrez ezarri beharko dira.

Kontratuak ez dauka helburu terapeutiko zehatza, jarrera aldaketa bat baizik.

KONTRATUA ZER EMATEN DIGU GURE EGUNEROKO GIZARTE LANGINTZAN

Elkarlanaren lokarri profesionalak finkatu daitezke

Esku hartze plana antolatze laguntzen du

Erabiltzailearen konfiantza eta motibazioa finkatzen du

Prozesuen sekuentzia eta denboralizazioa markatzen du

Komunikazioa hobetzen du, gizaki ulertzeak saihesten, hitzez hartutako konpromisoen froga objektiboak eskaintzen delako. Adibidez;

“Gogora esazu, konpromiso zehatz bat astero egitera hitza eman zenuela, hau da, Lanbide bulegora joatea astero gutxienez bi bider laneko eskaintzak ikusteko (zuzenean edo sarean) eta ez zara hau betetzen ari ,, kontratua errebisatu beharko dugu”

Erabiltzailearengan aldaketa finkatzeko laguntzen du

Itxaropenak eta helburuak argitzen dira

Adostutakoaren ebaluaketarako orientazio lagungarria, esku hartze prozesua ebaluatzeko adierazle objektiboak oinarri erabilgarria izanik

Kasuen G.L-rako Kontratuaren Ezaugarriak	
Oinarriak	
Definizioa	
Helburuak	
Prozedura	
Aplikazioa	
Motak	

KONTRATUA EGITEKO ABIAPUNTUAK

1. FASEA

Harremanaren hasiera, esku hartzearen lehenengo puntuak. Elkar ezagutzeko erabiltzen da, non elkarrenganako itxaropenak ikusten dira, konfiantza giroa sortzeko oinarriak jarri eta erabiltzailearen gaitasunak eta baliabideak aztertzen dira. Lehenengo elkarrizketen edukia ikasten da

2. FASEA

Puntu zehatz batzuetara heltzeko prozesuaren negoziaketa da. Elkarrekin eraikitzen dugu, bakoitzak bere interesak mahai gainean ipiniz. Aurreko fasean eraiki den harremanean oinarritzen da, lau garrantzitsu izaten:

Arazoen eta nahien argitzea

Komuneko helburuak ezarri

Lan plangintza eraiki

Kontratua formalizatu

3. FASEA

Zereginen banaketa, akonpainamendua, kontratuaren birdoitzea

4. FASEA

Kontratuaren abantaila bat, bere ebaluaketa objektiboa egitea da. Adostutakoaren azterketa eta balantzea egin daiteke, eta baita ere, sorturiko eta garatutako konpromisoak. Kontratuan dagoen guztiak gure esku hartzea bermatzen du

KONTRATU EBALUAKETA MOTAK

KUANTITATIBOA

Aldagai objektiboak eta kuantifikagarriak (neurgarriak) dira: Zenbakia, iraupena, elkarrizketen maiztasuna, telefono deia, etxeko bisitak ...

KUALITATIBOAK

Eragina neurtze da, harremanaren alderdi subjektiboak, kuantifikagarriak (neurgarriak) ez direnak: Pertsonak hautematen dituen onurak, eragozpenak eta aurkitutako zailtasunak ...

SINTESIA

3. GAIA. GIZARTE LANGINTZAREN ESKU-HARTZEA

3.1. ESKU-HARTZE PROFESIONALAREN EZAUGARRIAK

SARRERA

- Esku-hartze profesionala gauzatzen duen Gizarte Langintza, ondo definituta egon behar dira, elementu teoriko-praktikoak uztartuz, aldagai askoko egoera sozial batean eskua sartuko dugulako.
- Historia profesional bat sortzera goaz – hasi baino lehen, bitartean eta ondoren garatzen den esku-hartze profesional batekin.
- Beharren gatazkei aurre egiteko esku-hartzea.
- Arazoak konpontzeko prozesuaren esku-hartzea.
- Transakzio harremanen partaidetza bezalako esku-hartzea

Iturria: De Robertis, Cristina (1992). Metodologia de la intervención en trabajo social El Ateneo.

EZAUGARRIAK

Koherentea: Ideia eta ekintzen arteko harremana egon behar du.

Kritikoa: Gaien azterketa egiten, epaiketak egiten eta banakako-zein jarrera saihesten.

Dialektikoa: Jarraipen logiko bat jarraituz, modu metodiko eta justu baten, argudio eta diskusioarekin. Egon daitezken oposaketak arrazoitzen, tesia eta antitesiarri begira, sintesia bilatzen.

Malgua: Beste erabaki, ebazpen eta irizpide kontuan hartzeko jarrera ireki batekin.

Konektatua: Alderdiak, faseak, prozesuak eta momentuak harremanetan ipinita.

Logikoa: Prozesuak erregulariki garatzen dira, modu arrazoitua jarraituz. Aldatu nahi duen errealitate sozialarekin lotuta.

Arrazionala: Arrazoitze jarrera bat izaten. Gura pentsaera, ustea eta esku-hartzea errealitatearekin lotuta egonik. Datuen esperientzia kontutan izanda. Analisiaren antolaketa printzipioak jarraituz.

Teknikoa eta profesionala: Gizarte Langintzaren trebetasunak, ezagutzak eta berezkoak diren edukiak uztartuz. Modu sistematiko bat jarraituz. Irudi profesional bati lotuta.

BATASUNA

Gizarte langintzaren teoria -Gizarte zientziak- lotuta. Batasun hori zorrotzasun profesionalarekin dago lotuta. Egitura teknikoa eskatzen du:

Prozedura eraginkorrak ateratzeko gutxienezko gaitasuna.

Barruko koherentzia, alderdi txikiak oso bat osatzen dute.

- Ezagutzak

Egokiak izan behar dute, euren arteko harremana zainduz.

Garatu beharreko egoerak kontutan hartuta.

Euren arteko kontraesanak garatu gabe.

Objektibotasuna bultzatzen, hau da errealitate soziala ematen den bezala aztertzen da.

- Aurreiritziak, estigmak eta etiketak albo batera utzita.

Jarrera malgu batekin, okerreko posizio bat zuzentzeko.

Objektibotasuna jarrera zientifikoarekin lotuta dago, jarrera tekniko-profesionalarekin batera dantzatzen.

ALDAKETA KONTZEPTUA

Eraldaketaren eragileak gara.

Baina zer aldatu? Nor aldatu? Zergaitik aldatu? Nork aldatu?

Neurketa eta ebaluaketa egiteko baliogarria. Egoera sustatzen duen aldagaietan aldaketa, elementu subjektiboak ahaztu gabe. Erabiltzailearen aldaketarako jarrera ikertu eta bultzatu. Aldaketa, mugimendua da, gatazka eta desadostasuna.

KONTRAESAN KONTZEPTUA

Gure inguruan dagoen guztia kontraesan baten dago, dikotomietan bizitzen gara eta. Indar psikoafektiboak eta sentimendu gatazkatsuak eramtaen gaituzte hau planteatzera. Gure epaiketa normatiboak zalantzan ipintzeko beharrezko kontzeptua dugu. Gertatzen zaiguna kontraesanetan garatu eta eraldatzen da.

ELKARREN MENDEKOTASUNAREN KONTZEPTUA

- Esparru sozialean gertatzen dena, beste entitate sozial, talde, azpitalde, kide, komunikazio kanalekin batera doa.
- Pertsona bati gertatzen zaiona indar sozialekin dago lotuta, eta elkarren mendekotasuna sortzen da.
- Elkarren arteko harremanak eta mendekotasunak hartu behar dira kontutan.
- Taldeen eta familien bilakaera ulertzeko ezinbesteko kontzeptua.
- Pertsona batekin garatzen dugun gizarte langintza bere taldeekin lotuta egon beharko da.

OREKA DINAMIKOA

- Aurrean aipaturiko hiru kontzeptuak (aldaketa, kontrasana eta elkarren mendekotasuna) gizarte langintza aplikatzerakoan ematen da oreka dinamikoa.
- Kontraesanetan dauden indarrak neutralizatzerakoan sortzen da oreka.
- Edozein gertaerak desegin ahal du oreka (espero ez genuena gertatu da, elementu berri bat agertu da).
- Gugana datozen erabiltzaile askok euren oreka galduta dute.
 - Banantze prozesuak, heriotzak, laneko kanporaketak, etxeko kanporaketak, ospitalizazioa.
- Baina, oreka berreskuratu dugunean, beste gertaera bat etor dakiguke.
- Mugimendu hau beti bizirik dago, gizarte langile eta erabiltzailearen artean.
 - Hori dela eta, bidea elkarrekin egin beharko dute.

3.2 BANAKAKO ESKU-HARTZERAKO GIZARTE-DIAGNOSTIKOA II, ERANSKINA. MAIATZAREN 28KO 353/2013 DEKRETUARENA

Trena honek 172 adierazle ditu, 17 alderditan ordenatuak, eta halaber, 5 bizi-esparrutan antolatutak

BIZI ESPARRUAK

1. Ekonomia-, lan- eta egoitza-arloa.
2. Bizikidetzakoa
3. Langile-arloa
4. Osasuna
5. Gizarte-arloa

BIZI ESPARRUAK ETA ALDERDIAK

1. Ekonomia-, lan- eta egoitza-arloa.

- Ekonomia
- Okupazioa eta lana
- Egoitza

Egoera juridiko-administratiboa

2. Bizikidetzakoa

- Bizitoki eta etxebizitza
- Loturak afektiboak eta gizarte laguntza
- Bizikidetzako harreman-egoera, pertsonala eta familiako
- Eguneroko bizitzaren antolaketa.
- Bizikidetzak-harremanak: beste testuinguru batzuk.

Egoera juridiko-administratiboa

3. Langile-arloa

- Gizarte-abileziak.
- Hezkuntza-prestakuntza – informazioa – trabakuntza.
- Bizi-dinamismoak
- Babeserako sistemen erabilera.

Egoera juridikoa.

4. Osasuna

- Osasun-egoera
- Desgaitasun-egoera eta lanerako ezintasuna.
- Egoera juridiko-administratiboa.

5. Gizarte-arloa

- Gizarte-onarpena eta komunitateko eguneroko bizikidetzak.
- Gizarte-ingurunera eta arauetara egokitzea.
- Gizarte-harremanak izatea eta gizartean parte hartzea

BIZI-ESPARRUAK ETA ALDERDIAK EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA

2013ko ekainaren 26a, asteazkena 353/2013 DEKRETUA, maiatzaren 28koa, *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa.*

INFORMAZIOA BILTZEKO PROZEDURA

- Balorazioan aztertu beharko da zein gradutan erantzuten dieten haurren edo nerabearen tutoretza edo zaintza duten gurasoek edo pertsonak haren oinarrizko beharrizan fisiko, emozional, kognitibo eta sozialei. Horrek esan nahi du kasu guztietan -balorazioa egiteko arrazoia haurren edo nerabearen arreta-arlo jakin batek nozitutako kaltea izan arren- balorazioan balizko arduragabekeria (beharrizan fisikoen, segurtasunaren, prestakuntzaren eta beharrizan psikikoen arloko arduragabekeria-eskalak) eta tratu txar emozionala aztertu behar dira. Gainerako tipologiak (adibidez, tratu txar fisikoa, sexu-abusua, eskeketasuna, lan-esplotazioa) aztertuko dira, bakarrik, horiek daudela pentsatzera eraman dezakeen adierazle edo daturik badago. Kontuan hartu beharra dago kasu gehienetan babesgabetasunak eremu batean baino gehiagotan duela eragina, eta, beraz, tipologia bakar bat agertu ordez, hainbat tipologia ageri dira aldi berean, eta denak ez dira nahitaez larritasun-maila berekoak.

- Balioespena familia baten barruan bizi diren haur eta nerabe guztietara zabalduko da, horietako bati buruzko jakinarazpen batengatik hasi den kontuan hartu gabe. Haur eta nerabe bakoitzaren egoera balioetsiko da modu indibidualizatuan; familia-talde bereko kide izateak edo guraso-figuren tratu edo zaintza berbera jasotzeak ez du esan nahi inpaktua berbera izango denik haurren edo nerabearen garapenean eta ongizatean. Adingabe baten babesgabetasunak duen eragina gurasoen funtzioak betetzen dituzten pertsonak ematen dioten tratu edo zaintzaren mende egoteaz gain, beste faktore batzuen mende ere badago, hala nola haurren edo nerabearen egungo adina eta babesgabetasuneko egoera hasi zenean zuen adina, edo babesgabetasuneko edo kalteberatasuneko bestelako faktoreak egotea.

• Oro har, **babesgabetasunaren larritasuna honako hauen arabera** zehazten da:

(a) haurraren edo nerabearen gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen portaera, baina funtsean, (b) portaera horrek adingabearen osasun, ongizate eta garapenean duen edo izan dezakeen inpaktua¹⁰. Horren ildotik, kontuan hartu beharra dago gure testuinguruan babesgabetasuneko egoera baten ondorioz haurrak edo nerabeak ondorio fisiko larriak pairatzen dituen edo paira ditzakeen kasuak oso gutxi direla (muturreko kasuak dira edo adin txikiko haurrei eragiten diete). Kasu gehienetan, haurraren edo nerabearen gaineko inpaktu psikologikoa eta horren garapen emozional, sozial eta/edo kognitiboan duen eragina da kasuaren larritasuna zehazten duena. Horregatik, **larritasunaren balioespenean funtsezkoa da kontuan hartzea familiako harremanen osagai afektiboak**

eta babesgabetasunak haurraren edo nerabearen garapen emozional, sozial eta kognitiboan egun duen edo izan dezakeen inpaktua. Balioespen hori soilik **psikologiako edo psikiatriako profesionalek** egin dezakete. Horretarako, beren lanbidearen teknika propioak erabiliko dituzte, honako hauek barnean hartuta:

behaketa eta elkarrizketa, edota estandarizatutako tresnak aplikatzea. Teknika horiek proiektu motako probekin osatu ahal izango dira, beharrezkoa denean edo hala dagokionean. Estandarizatutako tresnak erabiltzen direnean, fidagarritasun eta baliozkotasun frogatua dutenak erabiliko dira, bereziki larritasun handiko kasuen balioespenean aplikatzen direnean eta/edo haurraren edo nerabearen gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen aurkako Gizarte Zerbitzuen esku-hartzea justifikatzeko erabiliko direnean.

Larritasun ertain, handi edo oso handiko babesgabetasun-egoeraren susmoa dagoen kasuetan horrek esan nahi du adingabearen edo nerabearen gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen portaerari buruzko informazioa biltzeaz gain, zuzenean adingabearen portaerari buruzko informazioa ere bildu behar dela. Ahal den guztietan, balioespena gauzatzen duten profesionalek gutxienez elkarrizketa bat egingo dute adingabearekin.

Horretarako, gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen baimena izan beharko dute -larritasun handiko kasua denean eta «haurraren edo nerabearen interes nagusiak» gomendatzen duenean izan ezik-. Ezinezkoa baldin bada, haurra edo nerabea ezagutzen duten hiru- 10 Oro har, babesgabetasuna eragiten duten edo horrekin lotuak dauden zirkunstantziak edo faktoreak ez dira erabakigarriak babesgabetasunaren existentzia eta horren larritasun-maila balioesteko unean; baina, erabakigarriak izango dira jarraitu beharreko esku-hartzea erabakitzeko unean. Larritasun ertain, handi

edo oso handiko babesgabetasuneko kasu gehienetan, haurraren edo nerabearen gurasoek edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak ez dute beren portaerarekin edo jarrerarekin kalterik eragiteko asmorik. Kasu gehienetan, behar bezala kontrolatu ezin dituzten zirkunstantzien eraginpean daude (adibidez: alkoholismoa edo toxikomania, nahaste psikologikoak, gaitasun hezitzaileen gabeziak, haurraren edo nerabearen premiak ez jakitea), eta beren zaintza-zereginak behar bezala betetzea eragozten diete. garren pertsona kualifikatuek (adibidez: irakasleak) emandako informazioa baliatuko da.

- Familiako kideen bitartez zuzenean eskura daitekeen informazioaz gain, balioespenean arreta ematen dieten osasun- eta eskola-arloko profesionalekin hitz egingo da beti, eta baita familiarekin esku hartzen duten bestelako zerbitzu garrantzitsuetako profesionalekin ere (adibidez: psikiatriako arreta-zerbitzuak). Mediku-txostena ezinbestekoa da haurraren edo nerabearen eragindako kalte fisiko larriak justifikatzeko.

- Pertsona heldu edo adingabe batengan nahaste psikopatologiko bat, adimen-urritasuna edo nahaste emozionalak daudela susmatzen denean -esate baterako, eraginpeko pertsonaren lankidetzaz ez izateagatik- eta psikologiako edo psikiatriako profesionalek behar den sakontasunarekin balioespen edo diagnosi egiaztatzaile bat egitea ezinezkoa denean, «susmoak» daudela ondorioztatu ahal izango da bakarrik, eta hori adieraziko da dagokion txostenean. Gomendagarria den arren, ez da beharrezkoa osasun mentaleko sare publikoko profesionalen txosten idatzi bat izatea zirkunstantzia hauetariko bat edo bat egiaztatutzat hartzeko. Gizarte Zerbitzuetan eta horientzat lan

egiten duten psikologiako profesionalen balioespena nahikoa da, betiere behar bezalako sakontasunarekin eta teknika egokiekin egiten bada.

- Balioespenean, haurren eta nerabeen eta horien familien intimitatean premiarik gabe sartzea saihestuko da.

- Arestian adierazi dugunez, **balioespena egiteko erabiltzen den informazioak osatua, eguneratua eta behar bezala egiaztatua izan beharko du.** Ez da inoiz arrisku edo babesgabetasuneko egoera bat dagoela egiaztatutzat edo frogatutzat hartuko baldintza horiek betetzen ez dituen informazioan oinarrituta. Hala ere, **kasu batzuetan ezinezkoa izango da informazio osatua biltzea**, esate baterako, okerra izan daitekeen iturri bakar bat erabil daitekeelako eta beste iturri batzuk baliatzea ezinezkoa delako, familiaren etxebizitza bisitatzea edo familiako kideren batekin zuzenean hitz egitea ezinezkoa izan delako -hori ezinbestekoa da informazio jakin batzuk lortu edo egiaztatzeko-, soilik zeharkako iturrietako informazioa baliatu ahal izan delako, eta/edo informazio jakin bat eman duten profesionalak ez direlako arlo honetako espezialistak eta beharrezkoak izango liratekeen espezialistekin aritzea ezinezkoa izan delako. Zirkunstantzia horiek gertatzen direnean, **arreta berezia jarriko da balioespenaren ondorioetan, dagokion txostenean argi eta garbi adierazita «susmoak» direla, «behar bezala egiaztatu ez den informazioa» dela, «behar beste informaziorik gabe» edo «informaziorik gabe» egin dela. *Inplikaturiko zerbitzuak eta balioespenerako beharrezko baliabideak***

- **Kasu gehienetan, babesgabetasuneko egoera baten existentziaren eta horren larritasunaren hasierako balioespena Udal mailako Gizarte Zeritzuen zeregina izango da;** hala ere, beste kasu batzuk, ezaugarri bereziak izateagatik -Lurralde Historiko bakoitzean zehaztuak- edo babesgabetasun larriko aztarna argiak edo urgentziako babeserako esku-hartzea eskatzen duen babesgabetasuneko egoera argia erakusteagatik, Lurralde mailako Gizarte Zerbitzuetara bideratu eta bertan balioetsiko dira (Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 53. eta 54. artikulua). Balioespen hori Gizarte Zerbitzuetako lantaldeek edo hitzartutako lantaldeek egin ahal izango dute, bidezkoztat hartzen denaren arabera eta

Lurralde, mankomunitate edo udalerrri bakoitzak duen baliabide- zuzkiduraren arabera. Kasuaren larritasunaren azken balioespena egitea eta egin beharreko jardunaren gaineko erabakia hartzea beti Herri Administrazioaren esku egongo da, horretarako ezarritako prozeduren bitartez.

- Babesgabetasuneko egoera baten existentzia eta horren larritasun-maila balioesteko prozesuak zailtasunak ditu. Irizpide tekniko sendoak eta objektiboak edukitzeaz gain, balioespen hau egiteko beharrezkoa den informazioa bildu eta interpretatzeko, Udal nahiz Lurralde mailako Gizarte Zerbitzuek honako baliabide hauek eduki behar dituzte: prestakuntza espezializatua duten profesionalez osatutako diziplina anitzeko lantaldeak, bi zerbitzuen arteko koordinazio egokia, eta haurarekin edo nerabearekin eta horren familiarekin harremanetan dauden zerbitzu komunitarioen sarearen lankidetzak aktiboa. Era berean, baldintza horiek ezinbestekoak dira arriskuko eta babesgabetasuneko egoeran dauden haur eta nerabeekin eta horien familiarekin prebentzioko edo errehabilitazioko esku-hartze eraginkor bat garatzeko.

4. GAIA. BANAKA ETA FAMILIA MAILAN APLIKATURIKO GIZARTE LANGINTZAREN PROZESU METODOLOGIKOAREN GARAPENA

4.1. BANAKAKO GIZARTE LANGINTZA PROZESU METODOLOGIKOA EREDU EKLEKTIKOA

4.1.0. AURREKO ELEMENTUAK HARREMANARI BEGIRA

Pertsonaren erabakia da eta momentu oro mugimenduan dago, hau da, aldakorra da. Aldaketak Zerbitzua edo baliabidearen erabakia. Gizarte langilearekiko jarrera zehazten du.

Esku-hartzearen xedea:


- 1) Arazo psiko-sozialek sorturiko gatazka egoeran dagoen pertsonari laguntzea.
- 2) Gaitasun psikologikoak eta sozialak garatu.
- 3) Orain eta geroan dauden arazoei aurre egin.
- 4) Trebetasun pertsonalak, baliabide pertsonalak eta sozialak erabili.
- 5) Sufrimendu eta frustrazioa ulertzeko eta toleratzeko gaitasuna garatu.
- 6) Ingurune sozialean egokitze gaitasuna bultzatu.

Esku-hartzearen prozesuaren faseak

HASIERAKOA, ikerketa eta diagnostikoa (1-2 saio)

ERTAINA, esku-hartzearen programaketa eta tratamendua (4 – 6 saio)

AMAIERAKOA, egindako lanaren ebaluaketa (saio 1)



4.1.1. IKERKETA. PARTE HARTZEN DUTEN ELEMENTUAK HASIERAKO FASEA

1. Rol, objektua eta esku-hartzearen prozeduraren azalpena.

Nola eta zergatik dagoen rola eta objektua zehaztuta. Ereku instituzionalean lan egiteko aukerak ematen ditu. Nahita edo nahigabe datorren erabiltzailea hartuko dugu. Itxaropenak zehaztuko ditugu, sentimenduak adierazteko aukera emanaz. Instituzio horren arauak eta eskuragarri dauden zerbitzuak eskainiko ditugu. Gelditu edo joateko aukerak emango ditugu konfiantza sortuz.

Nahi gabe datozen erabiltzaileekin – egoera eraldatu laguntzarako testuingurua bihurtzeko.

2. Eskaeraren analisia

EZBERDINDU behar ditugu ARAZOA – BEHARRA – ESKAERA

Eskaera motak: 1) Esplicitua eta zehatza. 2) Implizitua; 3) Zehaztu gabea anbigua; 4) Eskararik ez.

3. Ikerketaren programaketa

Esku-hartzea, erabiltzailea bere aldaketa prozesuan laguntzea datza. Elkarrekin definitu, mugatu ... nahi den aldaketa.

Ikerketa eta azterketa: lanerako hipotesiak.

EBALUAKETA ezinbestekoa da:

Zailtasunetan zentratu.

Jarrera ideologikoa.

Jarraiko prozesu dinamikoa, beti behin-behinekoa.

Erabiltzailearekin partekatua

Diligentzi subjektiboa (intelektuala – afektiboa)

4. Arazoak zerrendatu eta inplikaturiko beharrak.

Arazo arruntenak

1-Gabezi ekonomikoa eta giza baliabideak. 2-Ezagutza eta esperientzien gabezia. 3-Estresari erantzuteko erantzun emozionalak. 4-Gaixotasuna edo ezgaitasuna. 5-Harremanen galera. Giza harremanen atsekabea. 6-Pertsonen arteko gatazkak. 7-Gatazka kulturala. 8-Erakunde formalekin gertatzen diren gatazkak. 9-Talde edo familiaren funtzionamendu txarra. 10- Bestelako arazoak.

5. Dimentsioa, zehaztasuna eta arazoaren sintomak.

- Arazoaren dimentsioa eta luzapena
- Zehaztasuna: maiztasuna, larritasuna, iraupena.
- Kuantifikagarria eta objektiboa den informazioa

Erabiltzailearekin edo gertu dauden pertsonekin

6. Elementuen determinazioa: pertsona, arazoa, baliabideak eta beste sistemak.

- Osasun fisikoa eta psikologikoa.
- Familiako harremanak.
- Trebakuntza eta ezagutzak
- Bere rolen garapena.
- Egoera eta jarrera.
- Ingurumena.
- Auto-estima, auto-kontzeptua.
- Sare sozialak
- Pertsonalitatea
- Baliabideak
 - Pertsonalak
 - Sozialak edo instituzionalak
 - Inguruneak

Erregistro dokumentua: Banakako historia soziala

Beharrezko azken informazioa

- Arazoa edo eta eskaera
- Pertsona bere egoeran definitzen duten rolak.
- Egoeraren onarpena
- Testuinguru ezberdinetan pertsonak agertzen dituen rolak eta estatusak.
- Faktore biologiko, psikologiko eta sozialen integrazioa.
- Talderen partaide motak
- Pertsonalitatean eragina duten faktoreak
- Ingurugiroa
- Arazoa aldatzeko edo mantentzeko faktoreak.
- Inplikaturik dauden beste sistemekin lan egin beharra
- Komunikazioa.

4.1.2. DATUEN INTERPRETAZIOA-DIAGNOSTIKOA- HASIERAKO FASEA

7. Garrantzitsuenak diren arazoen hierarkizazioa.

Erabiltzailearekin egiten da, berak duen azken hitzagatik:

- Burujabetasun eskubidea.
- Eraginkortasun eta motibazio handiagoa.

Ez nahastu arazoak eta helburuak.

Lehentasun zerrendak egin eta bat etortzen ez direnean alderatu.

Arazo – danetan zentratu.

Galderak

Arazo garrantzitsu bat hartu da gutxienez?

Arazoaren gunek guztiak hierarkizatuta izan dira?

Hierarkizatutakoa erabiltzailearekin alderatu da?

Diagnostikoa

- Egoera bat eta beste baten Epaiketa – Azterketa konparatiboa, hau da, eraldatu nahi dugun egoera eta espero dugun egoeraren artekoa.
- Prozedura intelektuala, erreflexiboa, ideiak-hipotesiak-intuizioak ordenatu eta zehazten ditu, geroago etorriko den ekintzari begira.
- Pixka-pixkanaka egiten den operazio mentala, kasuaren ezagutzen egiten den sakontze prozesuaren arabera
- Instrumentu metodologikoa, arazoa, pertsona eta bere egoeraren deskribapena, balorapena eta interpretazioa ahalbidetzen duena

Diagnostikatu

- Ekintza konplexua, kontrastazio teorikoa eta analisiaren unitatearen (eskuhartzea) menpean, hasierako puntua markatuz. Adibidez: jarrera, egoaren gatazkak, rol sozialen disfuntzioa,

Lan egin behar dugun materialaren konfigurazioa jakin, ezagutu eta kontuan hartu, horrekin egingo denaz jabetuz.

Material baten aldaketan inplikutzen garen heinean konklusio batzuetara ailegatu behar gara:

- *Konpondu beharreko arazoaren izaera.– Lan edo eragin behar dugun ezaugarri eta atributueta.– Aurrekoarekin lotuta, nahi diren helburuak eta dauden baliabideak.*

Diagnostiko soziala – hipotesien formulazioa egoerari buruz

- Zer gertatzen ari da, nola, nori? – Zein laguntza?
- Zergatik gertatzen da? – Zein baliabide?
- Zein konponbideak?

Gainera, pronostikoa eta esku-hartze hipotesiak sartzen dira Diagnostikoa – informazio antolatua:

- Egoeraren deskribapen orokorra. – Interpretazioa: egoeraren sortzaileak
- Aurkitutakoa, esanguratsua dena. – Asmoa, pronostikoa edo egoeraren geroa.
- Elementu esanguratsuak, testuinguru globala eta soziala. – Ebaluaketa profesionala:

Azpimarragarria dena lokalizatu.

Gaitasunen analisia.

Mugen analisia

Zer gertatzen ari da, nola, nori?

8. Kontratua eta denboraren mugak

4.1.3. ESKU-HARTZE PROIEKTUA FASE ERTAINA

Esku-hartzea baldintzatzen duten faktoreak:

- Esperientzi profesional eza. • Denbora falta eta erabiltzaileen kopuru handia.
- Gizarte langilearen pertsonalitatea. • Gizarte langilearen baliabide eza.

GIZARTE LANGILEAREN ESKU-HARTZEAK	
ZUZENAK	EZ ZUZENAK
Argitu, sostengatu. Informatu, hezi Limurtu, eragin Kontrolatu, autoritatea azaldu Harremanetan jarri, aukerak sortu Erabiltzailearekin kolaborazio harremana sortu	Dokumentazioa antolatu Esku-hartzea programatu Ingurunean egin beharreko esku-hartzeak Beste profesionalekin koordinatu Beste erakunde sozialekin esku-hartzea

- Esku-hartzearen programaketa

- Bezeroarekin elkarlanean garatuta.
 - Ekintzen zerrenda bat sortu
- Helburuak zehatzak, dagozkien ekintzetan eraldatuta.
- Proiektuan inplikatzeke asmoarekin.
 - Akordioak atera.
 - Xehetasunak planifikatu eta garatuko diren ekintzen simulazioa.
- Baliabide pertsonalak, ingurukoak eta sozialak kontutan hartuz.
- Zer izango da lehenengo egingo dena?
- Erabiltzailearen erritmoa errespetatu, garatu ahal ez dituen ekintzekin agobiatu gabe.
- Sekuentzia logikoa mantendu
 - Arrazoiak eta sariak egokitu.
 - Arazo nagusien errebisioa.
 - Ekintzen ez betetzea
 - Berregituraketa
 - Denboraren mugen erabilera eta akordioen errebisioa
 - Arazo nagusien errebisioa.
 - Ekintzak ez betetzea
- Erabiltzailea ez dago interesatuta aukeratutako arazo nagusia konpontzen.
 - Berregituraketa
- Erabiltzailea ez dago interesatuta profesionalarekin bat lanean egiteko
 - Berregituraketa
- Espero ez den arazo baten agerpena
 - Denboraren mugen erabilera eta akordioen errebisioa
- Gaitasun batzuekin lan egiteko beharra.
 - Harreman profesionalean konfiantza gehiago sortu beharra

4.1.4. ESKU-HARTZEA – TRATAMENTUDA FASE ERTAINA

GIZARTE LANGINTZAN ESKU-HARTZEKO ESTRATEGIAK

- Giza eta material baliabideei buruzko informazioa eta kudeaketa.
- Krisi egoeran esku-hartzea.
- Egoera problematikoen konponketa.
- Zailtasun bereziko erabiltzaileak atenditzeko laguntza profesionala.
- Instituzioaren Zuzendaritza eta kontrola.
- Trebetasun berezien aholkularitza eta ikastaldia.
- Bezeroaren ingurunearekin bitartekatu.

4.1.5. EBALUAKETA AMAIERAKO FASEA

EBALUAKETAREN PROGRAMAKETA.

- Esku-hartzearen helburuen balioespen profesionala
- Hasierako fasean planifikatutako ebaluaketa.
- Esku-hartze prozesuaren balorazioa, egokitasuna, apropostasuna, barneko koherentzia eta erantzunkidetasuna
- Ebaluaketa informea

ARAZOEN AZKEN BERRIKUSTEA

- Arazoen sakoneko analisisia.
- Bizi izandako aldaketen zehaztapena.
- Erabiltzailea eta profesionalaren ebaluaketa alderatu.
- Kasuen parte hartu duten kolaboratzaileekin lortutakoa kontrastatu.
- Emaizak indartu.
- Erabiltzailea goraiatu lortutako emaitzengatik.
- Auto-estima eta auto-kontzeptuaren igoera kontuan hartu
- Etorkizuneko plangintza.
- Lorturiko emaitzen mailaren irismenaren arabera
- Arazoak konpontzeko trebetasunen berrikustea.
- Arazoak konpontzeko prozesua identifikatu
- Hausnarketa garatu.

- Esku-hartzearekiko erabiltzailearen erantzunak aztertu.
- Prozesuaren amaierarekiko profesionalaren erantzun negatiboak esploratu.
- Prozesuaren amaierarekiko kolaboratzaileen erantzun negatiboak esploratu.

4.2. GIZARTE LANGINTZA FAMILIEKIN PROZESU METODOLOGIKOA

4.2.0.AURREKO ELEMENTUAK

- Familiari errurik ez bota
- Aukera positiboak eta negatiboak aztertzen lagundu, dagozkien ondorioak baloratu eta aukera egokienaren bila abiatuz.
- Familiaren sare sozial luzea kontuan hartu (lagunak, senideak, etab.)
- Esku-hartzearen xedea eta helburua:
 - Bizitza zikoaren trantsizio momentuetan sorturiko gatazkak.
 - Aldaketa prozesu azkarrak, krisiak, estresa.
 - Kanpoko harremanen aldaketa, gizarteratze prozesuan aldaketak.
 - Sistemen barruen eta sistemen arteko komunikazio arazoak.
 - Rol gatazkak
 - Etab.
- 1. Rol, objektua eta esku-hartzearen prozeduraren azalpena.
- 2. Eskeraren analisia
- 3. Familiaren elkarrizketa
- 4. Ikerketaren programaketa
- 5. Arazoak zerrendatu eta inplikaturiko beharrak.
- 6. Arazoen dimentsioa, zehaztasuna eta sintomak.
- 7. Garrantzitsuenak diren arazo hierarkizazioa.
- 8. Kontratua eta denboraren mugak

4.2.1. FAMILIAREN IKERKETA.OINARRIZKO OSAGIAK HASIERAKO FASEA

1. Rol, objektua eta esku-hartzearen prozeduraren azalpena.

2. Eskaeraren analisia

- Eskaeraren aurkezpena
 - Berezko familiaren ekimena
 - Senide baten laguntza eskaera
 - Beste zerbitzu baten deribazioa
 - Eskaera zehaztu gabea (kontrol funtzioa)
- Harrera elkarrizketa
 - Interesak adierazi, kezkek, ekintzak

3. Familiaren elkarrizketa Oinarrizko printzipioak

IMPARTZIALTASUNA

Familiak ulertu behar du gizarte langilea ez dagoela inoren alde tartean gaude, gizarte langileak ez du epaitzen baizik eta familiaren kide guztiak onartzen ditu. Senide baten laguntza eskaera. – Beste zerbitzu baten deribazioa. – Eskaera zehaztu gabea (kontrol funtzioa) izango zen eta hau ekidin behar dugu.

ZIRKULARITATEA

Familiarengandik datorren erantzunean eraikitako ikerketa. Harremanak, ezberdintasunak, aldaketak eta arazoei buruz jasotzen dugun. Informazioan oinarritutako zirkularitatea.

HELBURU OROKORRA

Familiarentzat, oro har, eta senide bakoitzarentzat, arazoak edo sintomak azaltzen duen lekua eta garrantzia ulertu, l

ELEMENTU NAGUSIA

Senide bakoitzak besteekiko azaltzen duen jarrera (fisikoa edo psikologikoa) behatu

4. Ikerketaren programaketa

Familiari buruzko hipotesi batetik abiatuz, informazioa jasotzen hasten gara. Familiaren egitura, dimentsioak, banakako jarrerak, kide bakoitzaren mendekotasuna/autonomia. Horretarako Teknika desberdinak erabiliko ditugu:

- Behaketa
- Banakako elkarrizketak (etxeke bisitan)
- Familiako elkarrizketa (etxeke bisitan)
- Genograma
- Familiaren historia soziala.
- Familiak ulertu behar du gizarte langilea
- Ekomapa (Familia eta bere ingurunea adierazteko irudikapen grafikoaren diagrama)
- Sare sozialen mapa (irudikapen zirkularra, pertsona edo familiaren harreman sarea aztertzeke eta beste sistemekin duen intentsitatea)

5. Arazoak zerrendatu eta inplikaturiko beharrak.

Arazoei buruzko ordenarik gabeko edo kontraesanezko informazioa bildu. Estalita, ezkutatuta edo adierazi gabe dauden arazoak ezagutzeko zailtasunak daude. Adierazpenaren garrantzia:1-Senideen arteko interakzioa erabiliz adierazpena bultzatu.2- Denon arteko ardura partekatuan oinarrituz, adierazteko lagundu. Ohizko arazo motak:

– Familiaren funtzionamendu txarra.

– Senideen arteko gatazkak

– Banakako arazoak

– Familiaren ingurunearekin arazoak

• Aurreiritzi kulturelek markaturiko auzoko gatazkak.

• Familia zabalarekin harreman gatazkatsuak.

• Eskolako arazoak eta egokitzapen eza.

• Harreman esanguratsuen eza hurbileko ingurunearekin.

6. Arazoen dimentsioa, zehaztasuna eta sintomak.

Arazoak zerrendatu behar dira.Familiaren gizarte langintzan, banakako prozesuarekin konparatuz, fase hau ez da hain garbi agertzen. Beharrezkotzat jotzen da, esku-hartzea jarraituko duten senideak jakitea. Beharrezkoa izaten da komunikatzeko trebetasunekin harremanean dauden helburuak sartzea.

7. Garrantzitsuenak diren arazoen hierarkizazioa.

Esku-hartzearen inguruko objektuari buruzko akordioa, gizarte langile eta familiarekin hitzartzen da. Adostasuna ez dagoenena, gehiengoa hartuko da kontuan. Familiaren azterketa/diagnostikoa esku-hartze prozesua aurrera doan bitartean eraikitzen da. Minuchin : Familia aztertzeko sektoreak:

- Familiaren egitura.
- Sistemaren malgutasuna.
- Familia sistemaren durundia.
- Ingurune-testuingurua.
- Garapenaren egoera, banaka eta familia osoa.
- Familiaren barruko komunikazio ereduak.

4.2.2. FAMILIAREN DIAGNOSTIKOA HASIERAKO FASEA

8. Kontratua

- Mota orokorra
- Aldaketaren helburua.
- Senide bakoitzaren konpromisoak.
- Elkarrizketa kopurua.
- Aztertutako eta hierarkizatutako arazoek zehaztapena

4.2.3. ESKU-HARTZEA / TRATAMENTUA FASE ERTAINA

1. Esku-hartzearen programaketa.

ELKARRIZKETAREN ERABILERA HANDIAGOA

Kanpoko ekintzak: Senideek egin behar dituztenak, bakarka edo taldeka, saioen arteko denboran.

Ekintzak saioan: Gizarte langileak programatzen dituenak, saio familiarretan egiteko.

Partekatutako ekintzak: Bi senidek edo gehiago ekintza bat garatzeko elkarrekin egiten dute lan.

Banakako ekintzak: Bakarka senide batek egiten duen ekintza. Senide bakoitzak ekintza bat edo gehiago izan ahal du, edo baita ere, partekatutakoak.

2. Ekintzen zerrenda bat sortu.

Aukera ezberdinen proposamena: (1-Brainstorming: Denek proposatzen dute.
2-Ekintza saioan: Aukeren eztabaida).

Ekintzen zerrenda sortu: 1-Familiak aurkeztutako proposamena argitu.
2-Nolanahi ere, gainontzeko ekintzak proposatu.

3.Akordioak eraiki

Inplikaturiko senide guztien akordio zehatza

4. Detaileak planifikatu eta garatuko diren ekintzen simulazioa.

Partekatzen diren ekintzetan beharrezkoa

5. Arrazoiak eta sariak ezarri.

6. Arazo nagusien errebisioa.

7. Ekintzen ez betetzea.

Beharrezkoa da kontutan hartzea familiaren konplexutasuna.

8. Berregituraketa.

Beharrezkoa da familiari buruz pilatu dugun informazioa ondo jasotzeko.
Saioen erregistroetan ere pilatutakoa ondo biltzeko.

9. Denboraren mugen erabilera eta akordioen errebisioa

Segimendu jarraitua egin behar dugu, batez ere Kontutan hartua behin-behineko azterketa/diagnostikoa eta esku-hartze prozesua batera doazelako. Pertsona askoren partaidetza dagoenez, akordioen errebisioa handiagoa da eta epe laburreko konpromisoak behar ditu.

- Banakako prozesuarekin inplikazio pertsonal txikiagoa dago.
- Prozesua amaitzerakoan mendekotasun gutxiago.
- Amaitzeko konplexutasuna

Kide ezberdinak koordinatzeko.

Prozesua amaitzeko beharra edo gaitasunei buruzko desadostasunak

- Ebaluaketaren programaketa
- Arazoen azken errebisioa.
- Emaizak indartu.

Senideek, izandako emaitzak ikusteko aukera eman, bai banaka, bai familia mailan, aldaketak hitzez adierazten ere.

- Gerorako plangintza.
- Arazoak konpontzeko trebetasunen errebisioa.
- Hausnarketa egin.

4. EBALUAKETA AMAIERAKO FASEA

ESKU-HARTU BAINO LEHEN	ESKU-HARTU ONDOREN
<ul style="list-style-type: none"> • Ez zegoen arau zehatzik. • Desantolaketa. • Arduragabekeria. • Oihu eta irainez beteriko komunikazio gatazkatsua. • Auto-estimua eza • Komunitateko sistemekin harreman esanguratsuen gabezia. • Jatorriko familiarekin harreman gatazkatsua 	<ul style="list-style-type: none"> • Arau esplizituak daude. • Diziplina: bakoitzak daki zer egin behar duen eta zer espero da berarengandik. • Bizitza normalizatuaren estimulua eta nahia. • Komunikazio enpatikoa eta asertiboa nagusiki azaltzen da • Auto-kontzeptuaren hobekuntza. • Instituzioekin eta erakunde sozialekin harremanetan egoteko gaitasuna azaltzen dute. • Jatorriko familiarekin harremana berriz hasi da

4.3. FAMILIA ARAZOEN AURREAN

4.3.1. GIZARTE LANGILEA FAMILIA ARAZOEN AURREAN

4.3.1.1. INFORMAZIOA EZAGUTU

1. Familiako kideen izenak eta jaiotegunak. Heriotza egunak
2. Ezkontza egunak, oraingoak eta aurrekoak
3. Talde etniko eta kulturala. Erlijioa
4. Lehenengo harremanaren data. Nondik dator kasua

4.3.1.2. FAMILIA SISTEMA BEZALA:

FAMILIAREN EGITURA

1. Familia sistemaren barruan ari diren pertsona guztiak identifikatzea, familia zabaleko kideak barne, sistemaren zati bat bezala ari badira.
2. Azpisisistema. Azpisisistema bakoitzaren (senar-emaztearena, guraso / seme alabena, eta abar) erlazioa eta funtzionamendua deskribatzea.
3. Familiaren kohesioa. Mugak. Aliantzak. Familia-kideen arteko lotura eta banaketan emaitzak barne hartzen dira hemen. Arauak eta emozio giroa zehaztea.
4. Familia ingurua. Deskribatu behar da:
 - a. Familiaren bizimodua
 - b. Status sozioekonomikoa
 - d. Familia bizi deneko komunitate edo auzo mota, eta nolako harreman mota duen hark hauekiko. Komunitate edo auzoaren baliabideak deskribatu eta, orobat, familiak komunitatean dituen betebeharrak eta erantzukizunak.
 - e. Erreferentziazko talde kulturala: beronekiko identifikazio maila. Familia sistemaren duen eragin maila. Baliabideak. Familiak harekiko dituen betebeharrak eta erantzukizunak

FAMILIAREN FUNTZIONAMENDUA

1. Komunikazio ereduak
2. Eredu horiek bereganatzeko erabaki hartzea
3. Rol hartzeak
 - a. etxeko gobernuak
 - b. seme-alaben heziketa
 - d. familia sistema eusten duten kideak. Seme-alabak zaintzeko eta garatzeko estimulua. Maitasuna
4. Egokitzeko eta imitatzeko familiak dituen mekanismoak

FAMILIA SISTEMA BEZALA: FAMILIA HISTORIOAREN GARAPENA

1. Sustraiak, talde kulturalaren eragina eta sistema familiarreko aurreko belaunaldiak
2. Familiaren bizitzan ageri diren gertaera esanguratsuak
3. Familia bizitzaren garapena

4.3.1.3. ARDURAK, BEHARRIZANAK, ARAZOAK

1. Zergatik etorri da familia hau instituziora? Nolako zerbitzuak eskatzen ditu?
2. Familia-kide bakoitzaren beharrizanak
3. Familia barruko azpisistema bakoitzaren beharrizanak (arreta berezia eskaini behar zaio senar-emazteen eta gurasoen azpisistemei). Funtzionamendu egoki baterako behar diren baliabideak, laguntzak edo aldaketak identifikatzea
4. Familia sistemaren beharrizanak eta arazoak.
 - Familia-kidearen eta azpisistemaren beharrizanek nola eragiten duten familia sisteman hausnartzean.
 - Orobat, erantzukizun banaketaz, itxaropenak, eta familian sistema bezala eragiten duen edozein faktoreri buruz hitz egitea.
 - Familia sistemaren beharrizanen asetzea galarazten duten blokeoak eta arazoak identifikatzea.

4.3.1.4. BEHARRIZANEI ERANTZUTEKO BALIABIDEAK ETA MUGAK

1. Zer itxaroten du familiak eskatu duen zerbitzuaren emaitzaz?
2. Laguntza eskaintzeko familiaren zein ideia interes eta plan dira
2. eskaintzeko, ideia, aipagarri?
3. Zein arrazoi dauka familiak laguntza eskatzeko edo aldatzeko?
4. Zein ahalmen dauka familiak aldaketara egokitzeko?
5. Zein baliabide dauka familiak aldatzeko?(barruko baliabideak)
6. Zein baliabide sozial beharko luke familiak aldaketa jasaten, edo murrizten, lagundua izateko?
7. Aldaketa gauzatzeko, badago beste faktorerik familia sistemaren motibazioari, aukerari edo ahalmenari eragiten diotenak?
8. Badago komunitatean benetako baliabiderik familia honi laguntza emateko?
9. Zeintzuk dira baliabideak eta egoeraren mugak, familiako kideek bizi duten moduan, beharrizanei aurre egiteko eta arazoak konpontzeko?

4.3.2. GIZARTE LANGILEA FAMILIA ARAZOEN AURREAN

- Familia tipologiak aurkeztean, familia egoera baten diagnostikorako adierazleak

aurkitzea da garrantzitsuena, familia tipo hutsik ez dagoela kontuan hartuz.

- Familia beraren barruan tipo bat edo besteko ezaugarriak aurki daitezke.
- Ondorioz, sailkapen guztien funtzioa lan egiten ditugun familiak hobeto ulertzen laguntzea baino ez da, eta inoiz ezin dira erabili gure erabiltzaileei etiketak ipintzeko edo estigmatizatzen.
- Azpimarratu behar da, bestalde, gizarte langilearentzat oso zaila dela halako familia desegituratuekin esku hartzea. Etsigarria izan daiteke, arrazoi bat baino gehiago dela eta:

FAMILIAREKIN LANERAKO ZAILTASUNAREN ARRAZOI BATZUK

- Lehenengo eta behin, familia hauengana hurbiltzeko eta eurekin harreman egonkor bat garatzeko dauden zailtasunengatik,
 - Pertsona aldakor eta apetatsu bezala agertzen dira eta
 - Laguntza material baten aukeraren aurrean, limurtzaile ager daitezke;
 - eta bortitz eta oldarkor, berriz, aukera hori ezabatzen bada.
- Bigarren, erabiltzaile hauekin oso astiro eta pazientzia dosi handiekin lan egin behar delako,
 - Ez baitute jakiten ez gertaerak ez sentimenduak adierazten.
 - Aldiz, askotan hizkera ez-konbentzionala erabiltzen dute, eta horrek gizarte langilea nahas dezake batzuetan.
 - Sarritan arazoak izaten dituzte gertakizunen kausak eta ondorioak bereizteko, eta, hortaz, fatalismo dosi handiak edukitzen dituzte.
 - Bestalde, kanpoko irudimenezko etsai asko ere izaten dituzte, askotan aginte sinbolotan pertsonifikatuak: polizia, epaileak, maisu-maistrak (egia esan, hau dena norberaren porrotak gizarteari leporatzeko modu bat da).

FAMILIAREKIN LANERAKO ZAILTASUNAREN ARRAZOI BATZUK

- Kasu hauetan, oso aproposa izaten da gizarte langilearentzat familiarekin aliatzea, instituzioen edo kanpoko irudi horien erasoetatik babesten dituen defendatzaile edo abokatu papera jokatzuz familiarentzat (justiziarekin arazoak izanez gero, epaitegira aitorpena hartzera lagunduz, esate baterako; etxebizitzarako udal patronatuaren edo seme-alaben ikastetxeko zuzendaritzaren aurrean bitartekari lana eginez eta abar.

- Hirugarren, halako familiekin lan egiteko zailtasuna komunitateak dituen baliabide eskasia edo gabeziatik dator.

- Horrek ezina egiten baitu familien baldintza fisiko eta materialen hobekuntza.

- Hori, noski, oztopo handi bat da gizarte langileak garatu nahi duen lanerako, bere tratamenduaren oinarritzko alde bat, ingurugiroa aldatzea, ezerezean edo oztopaturik geratzen baita.

Hori guztiagatik, garrantzitsua da kontuan izatea arazo askoko familiekin esku hartzen dugunean, askotan ezin izango dugula arazoa konpondu, baina *bai euren min eta oinazea arintzea*.